


ARRASATE

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko urriaren 17a / 646. zenbakia

MARKULETEKO INDUSTRIALDEA

31 pabilioi industrial eraikitzeko lanak egiten dabil Debagoieneko Industrialdea izeneko elkarteak, eta maiatzerako bukatzea espero dute





ORAIN ETA HEMEN: SEXOLOGIA IKASTAROA/7 • KULTURA: 'ARRASATEKO TXOKO NATURALAK' LIBURUA/14

*AZALA: ALEX AZKARATE

OSASUN GIDA/24

Udazken haizea Arrasate Irratian



FM107.7  **ARRASATE
IRRATIA**

parte hartu irratian
Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com


KALEINKESTA/ Ze aktore gureko zeuke lehendakari izetie?



FELIX ARRIARAN
Langillie




MAITE ANDRES
Langabie



JOSU GUTIERREZ
Langillie



JOKIN LASPIUR
Langillie



XABIN MARTIARTU
Jubilau



CARMEN MARTIN
Langillie

Ez dakit ba, Jose Ramon Soroiz elegiduko neuke. Zer-gaittik? Tipo jatorra dala pentsetan jatelako. Umoro oneko pertsonie dala esango neuke; ondo egingo leuke lehendakari lana.

Neuk Klaudio Landa elegiduko neuke herri hau konponketako. Klaudiok serixotasunekin bukatu, eta umore apur bat jarriko leuke; egoerie aldaketan ahalginddu, behintzet.

Momentuen esateko, ez dakit ba... Jose Ramon Soroiz elegiduko neuke. Lehen be ibillitakue da lan horretan, eta umore haundiko pertsonie da. Gaiñera, neure herrikue da.

Neuk Karra Elejalde jarriko neuke lehendakari. Karran pelikulak ikusitue argi dau umore apur bat jarriko leukela. Oin dauen girue ikusitue, Karra elegiduko neuke.

Jose Ramon Soroiz elegiduko neuke, duda barik, gaiñera. Harek badauko esperientzia, ondo egingo leuke lan hori. Serixotasun txikixague eta umore haundixague egongo litzake.

Goenkale-n agerketan dan Iñaki Beraetxe elegiduko neuke. Pertsona argixe dala pentsetan jat, eta asmo onak eukiko leukela uste dot. Gaiñera, topiko batzukin bukatuko geuke.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK KALE LABAINKORRETAN BARANDAK IPINI DITUZTE

Orain dela gutxi, alde zaharreko hainbat kaletako lurra aldatu egin zuten, labainkortasuna arintzeko. Are gehiago, joan den astean kale horietan eskudelak ipini zituzten, eta zenbait herritarrek txalotu egin dute hobekuntza hori. Egia esatearren, euria egiten duenean Zurgin kantoiko aldapa, labainkor egoten da.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 8

KIROLA / 10

KULTURA / 14

Etxebizitzetako zozketa

Egin gura dituzten babes ofizialeko etxebizitzetako zozketa abendutik aurrera egingo dute.

Zaldibarko batzarra

Astelehenean, hilak 20, Zaldibarko Txapelketaren gainean erabakiak hartzeko batzarra egingo dute.

'Mahoma' hil egin da

Astelehenean, RIP musika taldeko abeslari Karlos Agirreurreta Mahoma hil egin zen.

ASTEKODATUA

%5,27

DA ARRASATEKO LANGABE KOPURUA

Irailaren 30ean jasotako datuen arabera, Arrasateko langabe kopurua %5,27 da. Hortaz, ekainean udalerrian jasotako langabe datuarekin alderatuta, zenbaki hori %0,43 igo da.

BESTEKEKESANA

“ Arrazoi ugari ditugu kirol-ehizari eta jarduera horren inguruan sortzen den guztiari ezezko biribila emateko. (...) Denon ondarea osatzen duten animalia errugabeen heriotza eta denonak diren mendien zikinkeria zein berunaren ondoriozko kutsadura besterik ez du eragiten jarduera horrek. Zaila da ehizaren aurka agertzea, ehiza hori bizibidea denean. Herri indigenek animaliak hiltzea gertakari naturala da (...) Ehiza hori eta gurean egiten dena ez datoz bat, lehenbizikoa berdinen arteko borroka baita, nolabait (...) Egun egiten den ehizaren helburua ez da elikadurak osatzen duen oinarritzko premiari erantzutea, ez baita jateko hiltzen, dibertsio hutsagatik baizik. Horrek garai bateko ehizak arbasoentzat zuen esanahia zikindu egiten du”

PITER ENCINAS
'BERRIA' / 03-10-12

HERRITARRENBERBAK/ Amaia Martiartu



Seattle-etik Euskal Herrira

Epa, Uba, zer moduz? Ereñegun salmoiak ikustera fan gitzan. Haura espektakulosa: Zaut! Kristoren saltoa, eta handik gutxira barriro, zaut! Beste salto bat. Mexikon hasita ia Kanadaraino heltzen dan bidaia amaitzeraino datoz hona, aurratzak ipiñi eta hil egiten dira. Sinesteziña. Eta, han, hipnotizatuta ninguela, Opus Deiari buruz pentsatzen hasi nintzan. Eta jendeak pentsatuko dau: baña ze os... piiiii!!! daukie emankumunian salmoiek eta Opus Deiak? Zorionez, babez.

Irailian Iruñako unibertsitatara, Opus-ekua, CAP pedagogi kurtsoa egitera fan bihar izan nitzan eta ondio lan praktikoak bukatzeke daukat. Noski, momentu hobere-netan gogoratu bihar dittut asunto hauek... eta bapatian, arraintzar honeik begira ninguela, salmoi sentitu nitzan. Hobe esanda, Opus-eko klase haietan salmoi sentitzen

giñan bai ni eta bai han ezaututako euskaldun ikaskidiok: ...Opus-ium español-um erreka hartan euskaldun zaldunok arriskuz beteriko bidaia kontrakorrontean egin behar izan genuen! Hitzaldietako korrontek zekartzaten komentario izugarriak jasan behar izan genituen indar adoretzuaz. Adi, esandakoei: ... *porque aquí en España, la educación de los niños...*; ...en Navarra, una de las comunidades más avanzadas de España...; ...es muy importante que los inmigrantes aprendan nuestra lengua, el castellano...

Eta salmoiak bezala aurrera egin genuen gaitzeko zegoen guztia gaitzuta. Atzera begiratu gabe, atzera egin gabe...

Klaseak amaitu zien eta ondio be euskal-salmoia izaten jarraitu nahi dot. Bizitzarako bidaia amaitu baño lehen gure euskal-arratzak ipiniko dittugu herriak bizirik iraungo duela ziurtatzeko. Ole!

“Eta salmoiak bezala aurrera egin genuen gaitzeko zegoen guztia gaitzuta. Atzera begiratu gabe, atzera egin gabe”

Arrasate

Otalora Lizenziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 17
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30

ZAPATUA, 18
Español. Araba etorb. 17 943 79 18 65

DOMEKA, 19
Español. Araba etorb. 17 943 79 18 65

ASTELEHENA, 20
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15

MARTITZENA, 21
Azkoaga, Iturriotz 943 79 79 99

EGUAZTENA, 22
Corcuera, Maisu Aranbarri 1 943 79 22 26

EGUENA, 23
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39

EGUBAKOITZA, 24
Amezua, Santamaina 32 943 79 09 74

TELEFONOJAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Iguatorioroa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

Arrasate
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZTA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILEAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) Santa Marinako eliza Jaiegungu bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

'MAHOMA'-REN OMENEZ
Etzi, domeka, Karlos Agirreurreta *Mahoma*-ren lagunek omenaldia egingo diote Besaiden. 12:00etan ipini dute hitzordua.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Eguenean, urriaren 23an, *En la puta vida* filma emango dute Amaia Udál Antzokian, 21:30ean.

1942AN JAIOTAKOAK
1942an jaiotako emakumeek urteroko ospakizuna egingo dute urriaren 25ean. Meza egingo dute San Frantzisko elizan, 13:00etan; mezaren ostean, Musakola Hostalean bazkalduko dute. Eman izena Mari Carmen Aranbururi, urriaren 18a baino lehen.

GOIKOBALU AZPEITIRA
Etzi, domeka, Goikobaluko 40 lagunek kontzertua egingo dute Azpeitiko Jesusen Bihotzaren Mirabe-en elizan. 12:00etako mezaren ostean egingo dute, Azpeitiko Udalaren Kultura Zikloaren barruan.

YOGA ESKOLAK
Sanatana Dharma Yoga Eskolak hainbat ikastaro antolatu ditu: astelehen eta eguazten goizetan Musakolako kiroldegian eta arratsaldeetan San Viator Txikin. 635 71 06 16.

AEDrenAGENDA

AED-KO BERTSO ESKOLA
AEDko Bertso Eskolak ikasturtea hasi du. 9 eta 12 urte arteko ibarreko neska-mutikoek AEDko bulegoan eman behar dute izena, lehenbailehen. Matrikula 30 euro izango da, urteko. Egubakoitzero batuko dira AEDren egoitzan, 17:00etatik 18:30era. Informazio zabalagoa jaso dezakezue, 943 77 12 28 telefonora deituta.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Ivo Pogorelich serbo-kroaziarraren kontzertua

Errusiako Orkestrak, Ivo Pogorelich piano jotzailearekin eta Mikhail Pletnev zuzendariarekin, Tchaikovskyren *Romeo eta Julieta*, Rimsky Korsakov-en *Sheherazade* eta Prokofiev-en lan bat eskaini zituen. Ivo Pogorelichek harreman handia du herriarekin eta Arrasate Musikalekin.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru


"Imutua"

Inbutu.
—Imutu barik ezin ddot ardao-botillia bete.



GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Xabier Zubizarreta zapatuan eta domekan

Xabier Zubizarreta Herri Anitza plataformako kidea izan da aste honetan Arrasate Irratian. Arrasateko Udaleko jardunaren eta Mankomunitatearen gainean galdetu diogu *Txiron*-i. Elkarrizketa 10:15ean eskainiko dugu, baita beste batzuk ere.

Karlos Agirreurreta *Mahoma* hil dela eta, haren gainean hainbat lagunekin izandako solasaldiak errepikatuko ditugu, baita Vatikanoko Irratiko albistegiko zuzendari Inazio Arregi-ekin izandakoa ere.



Seme edo alaba hil zaienen elkarte

Asteazkenean, 09:30ean, Patxi Izagirre psikologikoarekin egingo dugu berba. Semea edo alaba hil zaien gurasoei laguntza emateko elkarte antolatzeke lanetan ari da psikologoa. Bizkaian bada horrelako elkarte bat, eta orain Gipuzkoan eratu gura dute.

Martitzenean, berriz, hileko galdera egingo dugu. Errepideen egoera zelakoa den galdetzen ari gara, eta orain arte, autobus eta taxi gidari biri egin diegu galdera.

HAUGIROA!

MINIMOA
Eguaztena, 8 **8 °C**

MAXIMOA
Zapatua, 11 **28 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **16,7 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 8	19 °C	8 °C	3,1 l/m ²
Eguena, 9	17 °C	14 °C	0,9 l/m ²
Egubakoitza, 10	20 °C	13 °C	— l/m ²
Zapatua, 11	28 °C	11 °C	0,7 l/m ²
Domeka, 12	24 °C	14 °C	8,3 l/m ²
Astelehena, 13	21 °C	16 °C	3,3 l/m ²
Martitzena, 14	20 °C	16 °C	0,4 l/m ²

Bergarako San Juan zuoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Xabier Zubizarreta; Mahoma gogoratuz (Ruper Ordorika, Julio Ibarra, Iosu Zabala...); Leire Kortabarría (AEBko herri aldizkariak); Inaxio Arregi, Vatikanoko irratiaz...

DOMEKA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia: Albistek eta elkarrizketa.
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo autobusera magazina: efermerideak, elkarrizketak, kirolak, abokatu, dietista...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:06 Igo autobusera magazina: sukaldia, literatura, musika, kontu-kontari, hileko galdera...
11:30 Arrasate Irratiko albistegia.
11:40 Igo autobusera magazina: sarreren zozketak, zorion agurrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia.
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunekin osatutako musika tartea.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra.

ASTEABIHITZETAN

Industria Museoa berritzen

Industria Museoaren azken berritasuna Arrasateko kooperatibismoan esku hartu zuten hiru lagunen esperientzia jasotzea izan da. Testigantza horiek ahoz jaso dituzte, eta Zerrajerako museoan daude entzungai. Orain arte Zerrajeran lan egin zuten langileen testigantzak zeuden entzungai, eta orain, kooperatibismoaren sorreran zerikusia izan zutenen berbak jaso dituzte.

Testigantza horiekin guztiekin liburu bat egiteko asmoa dute Industria Museoko lagunek.

Izatezko bikoteek zerga erregimen bera

Aurrerantzean izatezko bikoteek eta ezkonduetako bikoteek zerga erregimen bera izango dute Gipuzkoan. Arrasateko Udalean 100 bikote daude izatezko bikote moduan, baina zerga horren aukerez baliatzeko ez da nahikoa Udaleko erregistroan egotea.

Aukera horietaz baliatzeko Euskal Autonomia Erkidego-ko izatezko bikoteen erregistroan eman behar da izena. Udalak zerrendan datozen bikoteei horren gaineko informazio zehatza emango die. Jaurlaritzaren zerrendan sartuta, izatezko bikoteek eta ezkonduetako zerga tratamendu bera izango dute.

Ezbeharrak Pablo Urangan

Astelehen arratsaldean ezbeharrak izan zen Pablo Uranga kalean. 15:30ak aldera, T.Z.G. 56 urteko emakume arrasatearra ahizparen etxetik erorita hil zen. Egoera ikertzen, besteak beste, Ertzaintzako agenteak izan ziren Pablo Urangan. Gorpua ezbeharrak gertatu eta ordubetera jaso zuten, 16:30ak aldera.

Martitzen arratsaldean (19:00etan) egin zuten hildakoaren aldeko hileta elizkizuna, Uribarriko parrokian.



700 lagun EHNA egiteko asmoarekin

Domekan Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena tramitatu zuten 700 mondragoetarrek. Bai Euskal Herriari plataformak antolatu zuen ekimena. Eguerdian ireki zituzten mahaiak, eta hori egiteaz batera Herriko Plaza jendez bete zen; izan ere, arrakasta handia izan du deialdiak.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Aste tristea


Aste honetan, udan bezalaxe, ezbehar asko egon dira Arrasaten, larregi. Ezbeharrak beti daude soberan, jakina. Horien artean bada bat zelanbait nabarmendu dena. Karlos Agirreurreta **Mahoma**-ren heriotzaz ari naitzaizue. Azken finean, haren taldea, RIP, ezinbestekoa izan da Euskal Herriko musika alorrean. Eta taldeko

partaideek beti umiltasunez jokatu duten arren, ezagun da taldeak izan duen garrantzi eta eragin handia. Egunkariak eta irratiek albisteak zabal eman dute, eta Karlosen beraren eta taldearen ibilbidearen gaineko hainbat erreportaje eta saio berezi egin dituzte. RIP taldekoek onartu beharko dute, behingoz, taldeak benetan garrantzi handia izan zuela.

Bestalde, abeslari ezaguna izan arren, Karlos gizon handia zen. Norbait hil ondoren, hartaz ondo berba egitea topikoa den arren, horrela da. Haren lagunek eta ezagutu genuenok badakigu mutil zintzoa zela eta edozeini laguntzeko prest zegoela.

Bilbon bizi zen arren, sarritan etortzen zen Arrasatera familia kontuengatik, baita lagunak ikustera ere. Egia esanda, Bilbotik, zelanbaiteko herri-mina zuen.

ASTEKOIRUDIA



OIHANA ELORZA

UMEEN GOZAMENERAKO, ZIRKUA IZANGO DA ARRUENAN DOMEKARA ARTE

Beste urtebetetz, etorri zaigu zirkua Arrasatera, Arruena zelaira. Gainera, aurten inoiz baino karpak handiagoa ipini dute; esaterako, 32 kamioi, 10 furgoneta eta 62 lagun daude. Eta nobedadeak ekarri dituzte, tartean ikuskizun ikusgarriak; adibidez, horietako baten, gizonezko batek eta krokodi-

lo batek borroka egiten dute igerileku baten. Atzo eta herenegun hasi ziren zirku-saioak. Eta bihar eta etzi segituko dute. Bihar 17:00etan eta 19:00etan izango da saioa ikusteko aukera eta domekan, 12:00etan, 17:00etan eta 19:30ean. Gero, hemendik Oñatira joango dira. /U.M.



Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20



Gambrinus garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketen teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

HIRIGINTZA/ Debagoieneko Industrialdea SA erakundeak bultzatuta pabilioi industrialak eraikitzen dabilta

Markuleten 31 pabilioi industrial eraikitzen dabilta joan den abuztuaz geroztik

UBANE MADERA

Markulete industrialdean aurrera doaz industria pabilioi berriak eraikitze lanak. Hirugarren sektorea izeneko gunean eraikitzen dabilta; guztira, 31 pabilioi izango dira. Debagoieneko Industrialdea SA izeneko elkarteak bultzatutako ekimena da.


Joan den ekainean onartu zuen Arrasateko Udalak Markuleteko industrialdearen proiektua, eta abuztuaren hasi zituzten industria pabilioiak eraikitze lanak, Markuleten.

Debagoieneko Industrialdea SA erakundeak bultzatutako ekimena da. Haren kudeatzaile Koldo Pereirak esan digunez, Markuleteko hirugarren sektoreko lanak bide onetik doaz, batik bat, eguraldiak asko lagundu duela orain arte.

Lehen esandako moduan, proiektuaren arabera, 31 pabilioi industrial eraiki behar dituzte Garagartzara bideko industrialdean. Guztira, 14.475 metro koadro erabiliko dituzte horretarako. Hala, pabilioi gehienek 300 metro koadro izango dituzte, baina, izango dira 500 eta 900 m²-ko pabilioiak ere. Eta pabilioi batek 1.500 m² izango ditu.

GABONETARAKO LANAK AURRERATUTA

Hain justu ere, orain arte lau pabilioi dituzte hitzemandak. Horietako bat 1.500 metro koadrokoa da; Leintz Garraioak enpresak erabiliko du autobusak-eta gordetzeko. Hitzemandako beste hiru pabilioiak leku handiagoa behar duten lantegiendako izango dira. Gainerako pabilioiak jabe barik daude oraindik. Koldo Pereirak adierazi digu-



Abuztuaren hasi zituzten lanak eta oraingoz bide onetik doaz, eguraldi onak lagunduta.

Guztira, 14.475 metro koadro erabiliko dituzte 31 pabilioi industrial eraikitzeke

nez, 1998an abiarazi zuten Markuleterako egitasmoa. Hala, orduan enpresa batek baino gehiagok eman zuen izena pabi-

Urte bukaera aldera zehaztuko dituzte Markuleteko pabilioi berrien prezioak

lioiak eskuratzeko. Baina, denbora pasatu denez, baliteke eskeraren bat zein beste ez berrestea. Debagoieneko Industrialde-

Maiatzerako lanak bukatuta egongo direla espero du enpresa eraikitzaileak

aren kudeatzailearen esanetan, urte bukaera aldera gura dute ziurtatu pabilioiekiko dagoen eskaera. Hain zuzen ere, pabi-

lioiak dezente eraikita izango dira ordurako, eta posible izango da haiei prezio zehatza ezartzea. Hala, prezioak esku artean izanda merkaturatuko dituzte Gabon inguruan gainerako pabilioi industrialak.

Galdiano enpresa dabil Markuleteko lanak egiten. Guztira, 5.500.000 euroko aurrekontua dute (BEZ barik). Eta maiatzerako lanak bukatuta egongo direla espero dute.

Debagoieneko Industrialdea SA erakundeak Arrasaten abiarazi duen aurreneko proiektua da Markuletekoa. Bergaran, adibidez, Labegarrietako Industrialdea egin zuen erakunde horrek.

DEBAGOIENOKO INDUSTRIALDEA

Ibarreko industrialdeak batzen dituen elkarte da Debagoieneko Industrialdea. Oñatin hasi zuen ibilbidea, 1982an. Eta 2001ean Aretxabaletako eta Bergarako industrialdeekin bat egin zuen. Apurka-apurka egitasmoa zabaltzen joan da, lan eremua zabaltzen, eta gaur egun, Aretxabaletako, Oñatiko, Bergarako eta Arrasateko udalek parte hartzen dute egitasmoan, Gipuzkoako Diputazioarekin eta Spilurrekin batera. Mankomunitateak ere badu bere parte-hartzea, nahiz eta txikia izan. Modu horretan, oraindik elkarteko kide ez diren herrietan ekimenen bat balego, hura kudeatzeko aukera izango luke Debagoieneko Industrialdeak.

Oro har, Debagoieneko Industrialdeak duen helburua da gure ibarrean industria ekimenak eta inbertsioak bultzatzea eta enplegua sortzea. Hori lortzeko, batetik, lur industrialaren urbanizazio planak abiaraziko dituzte, eta bestetik, pabilioi industrialak eraikiko dituzte.

Telleria baserriko labea industrialdean


Markulete industrialdearen lanak bukatzen dituztenean, bereizgarri bat izango du hirugarren sektore horrek: teilak, adreiluak eta zeramikazko bestelako elementuak egiteko antzinako labea. Hantxe egongo da, hirugarren sektore horretan gordeta eta babestuta. Izan ere, labe hori garrantzitsua da historiaren ikuspuntutik; kultura ondarearen ikuspuntutik, hain justu ere.

Orain dela bi urte bota zuten Telleria baserria, eta haren barruan agertu zen adreiluak-eta egiteko labea. Iaz, Aranzadi Zientzia Elkarteak labearen garrantzia zehazteko azterketa egin zuen. Eta emaitza dezente pozgarriak eskuratu zituen. Izan ere, labe hori Telleria baserriaren barruan gordeta egon denez, oso egoera onean kontserbatuta dago eta berebiziko garrantzia dauka. Antzinakoa da oso. Aranzadi elkartearen azterketaren arabe-

ra, labearen gaineko aipamen zaharrena XVIII. mendearen erdialdekoa da. Hala ere, XVI. mendean bada Uribarriko labe baten aipamenik. Hortaz, uste baino zaharragoa izan daiteke. Mota horretako labeek XIX. mendera arte segitu zuten lanean; aurreneko produkzio industrialarekin batera desagertu ziren.

Antzina herrikideek eguneroko bizimoduaren erabiltzen zutenaren adierazgarri da Telleriako labea. Baita artisau-industriaren adierazgarri ere. Eta kontuan hartuta dagoeneko industria mota hori desagertuta dagoela, labearen garrantzia handiagoa da. Horregatik guztiatik erabaki zuen Arrasateko Udalak labe hori gorde beharreko altxor historikoa zela.

Argazkian ikusten duzuenaz, orain labea egurrekin utsita eta babestuta dago, inguruan egiten dabilzan lanek kalterik eragin ez diezaizoten.



Orain dela pare bat urte bota zuten Telleria baserria; haren barruan agertu zen labea.



ARTXIBOA

Zabaldu berri duten Emakume Txokoan izango da ikastaroa, azaroko astelehenean eta abenduko aurreneko astelehenean.

SEXOLOGIA/ Sexologia ikastaroa antolatu du Arrasateko Sexologia Zerbitzuak

Sexologia ikastaroa izango da emakume gazteendako

UBANE MADERA

Arrasateko Sexologia Zerbitzuak antolatuta, emakumearen eredu sexual kulturala aztertuko dute, ikastaro baten bitartez. Hain zuzen ere, emakume gazteei zuzendutako ikastaroa izango da. Azaroan hasi eta abenduan bukatuko da. Emakume Txokoan izango da.

Honako hauek izango dira ikastaroaren helburuak: emakume izatearen sexualitateak duen garrantzia ohartaraztea; eredu sexual kultural nagusia aztertea eta horrek emakumeen eta gizonen izatean duen eragina aztertea; estereotipatutako urratsen hausnarketa; eta ulermen jarre-

rak garatzea. Izan ere, bizitzan oinarritako prozesua da gure sexualitatea onartzea, baina baita besteena ere.

EDUKIAK ETA METODOLOGIA

Hori guztiori aztertzeko, hiru eduki nagusi landuko dituzte: sexualitatea, sexua, erotika eta identitate kontzeptuak; sexualitatearen historia (Freud, Master y Jhonson, Sherfey...); eta gozamenaren kontzeptuak.

Eta metodologia parte hartzailea erabiliko dute ikastaroan; hau da, ikasleen zuzeneko parte-hartzea bultzatuko dute.

Ikastaroa Arrasateko Sexologia Zerbitzuko langileek emango dute zabaldu berri duten Emakume Txokoan; eta azaroan hasi

eta abenduko aurreneko astean bukatuko da.

Astelehenean izango da; hortaz, azaroaren 10ean, 17an eta 24an eta abenduaren 1ean; 17:00etan hasi eta 20:00etan bukatuko da.

PLAZA MUGATUAK

Interesa duenak azaroaren 6a baino lehen eman beharko du izena. Horretarako honako telefonora deitu behar du: 943 79 41 39. Astelehenean egubakoitzera 16:00etatik 20:00etara dei daiteke egunero eta 11:00etatik 14:00etara martitzenetan eta egubakoitzetan. Ikastaroa doan izango da. Hori bai, ikasle kopuru mugatua onartuko dute; hortaz, lehenbailehen deitzea komeni da.

Udala plaza inguruko zubia aldatzea aztertzen dabil

U.M.

Udala plazaren ondoan dagoen zubia ordezkatu gura du Udalak. Jaurlaritzaren eta Diputazioaren laguntza eskatu du lanok egiteko. Hala jakinarazi du oraingo asteko Gobernu batzordeak.

Udala plazaren ondoan GI-2620 errepidea dago, Aramaiotik datorrena. Hain zuzen ere, errepide horrek Udala plaza inguruan Aramaio ibaia zeharkatzen du, zubi moduan. Eta laster, han inguruan Aramaio ibaia garbitzeko kolektorea eraiki behar dute, ur zikinak batzeko kolektorea, hain zuzen ere.

Kontua da kolektorearen lanok egiteko inguru hura aztertzen zebiltzala ikusi zutela zubiaren egoera nahiko kaskarra zela. Hala adierazi du Hirigintza batzordeak oraingo asteko Gobernu batzordean.

Hirigintza batzordearen esanetan, ikuspuntu hidraulikotik, zubi horrek ez ditu indarrean

dauden arauak betetzen. Oso noizean behin izaten den uholde handi horietako bat gertatuz gero, adibidez, izugarrizko kalteak sortuko liriteke, zubiak eraginda.

Horrez gainera, zirkulazioaren ikuspuntutik zubi hori ez da batere egokia. Hirigintza batzordearen esanetan, eragozpenak besterik ez du sortzen, besteak beste, oso bide estua delako.

ZUBIA ALDATZEKO AUKERA

Hori guztia dela eta, zubia aldatzeko aukera aztertzen dabil Arrasateko Udala. Eta, hain justu ere, oraingo astean erabaki du horren berri ematea Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzari eta Diputazioko Errepide Zuzendaritzari; biek hala biek diruz lagundu dezaten proiektua.

URIBE AUZOKO ARGITERIA BERRITZEKO

Bestalde, Gobernu batzordetik alden du barik, esan beharra dago Uribe auzoko argiteria berritzeko proiektua onartu duela oraingo astean. Ia 31.000 euro inbertituko dituzte lanok egiten.



U.M.

Zubia ordezkatzeko aukera aztertzen dabil Arrasateko Udala.

Gesalibar eta Bedoña auzoetako alkatetzak berrituko dituzte

U.M.

Gesalibar auzoan alkatetzarako eraikin berria egingo dute. Bedoña auzoan, berriz, antzinako eskola berrituko dute alkatetza moduan erabiltzeko. Bi auzoetarako egitasmoak onartu dituzte oraingo astean.

Gesalibar auzoan, Arbitrios Etxearen behe aldeko lokala erostea erabaki zuen Arrasateko Udalak joan den agintaldian, han alkatetza eraikitzeko. Eta gaia dezentte abiatuta zebilen, eskriturak sinatzea besterik ez zen falta. Baina orain, Gesalibarko alkate

berriak, Jose Ramon Askasibarrek, Udalarari jakinarazi dio auzoetarako leku hura ez dela egokia. Batetik, auzoaren erdigunetik urrun dagoelako; eta bestetik, hara joateko arrisku handia dagoelako, errepide ondoan dago-eta.

Gauzak horrela, Udalak egoera aztertu eta erabaki du lokal berria eraikiko duela Gesalibar alkatetzarako. Hain zuzen ere, Txirrita tabernaren ondoan eraikitzea erabaki dute, auzoko plazan, han egiten dute-eta bizimodua auzotar gehienek. Horrela, Aita Menni ospitalearen lokal zaharrak bota (ordenazioz kanpo daudenak), eta han egingo dute erai-

kin berria. Alkatetzarako izateaz gain, oro har, auzotarren erabilerarako izango da.

BEDOÑAKO ALKATETZA

Bestalde, Bedoñako alkatetzari dagokionez, auzoko plazan dagoen antzinako eskola berritu egingo dute; alkatetza txiki geratu zaie bedoñarrei, eta lokalaren egoera bera ere dezente eskasa da. Hala, antzinako eskolako tabike bat bota egingo dute, eta han dauden bi trastelekuak kendu egingo dituzte; eta lokal handia alkatetzarako utziko dute. Horrez gain, bestelako berrikuntza lanok ere egingo dituzte. Frixi enpresak egingo ditu lanok.

LABUR

Langabezia-tasak gora egin du irailean, eta ibarrean Arrasatek du tasa handiena

Langabezia-tasak gora egin du aurreko hilabetean gure inguruan. Gipuzkoan, esaterako, %6,30ekoa da. Debagoienan, berriz, tasa hori baxuagoa da: %4,70. Hori bai, Debagoienarekin konparatuz, Arrasateko langabezia-tasa altuagoa da: %5,27. Datuak esku artean, une honetan, Arrasatek dauka ibarreko langabezia-tasa altuena. INEMek kaleratutako datuen arabera, eta lehenagoko datuekin konparatuz gero, ia puntu eta erdian igo da langabezia-tasa.

Zenbakietara bagoaz, Arrasatek 10.956 lagun dauka lanean jarduteko moduan. Horietatik 578 langabezian daude. Eta, orokorrean gertatzen den moduan, Arrasaten ere langabezia-tasa handiena emakumeen artean dago; izan ere, 20 eta 60 urte bitarteko 337 emakume daude Arrasaten lan barik. Gizonezkoen artean, berriz, kopurua dezente murrizten da: hain zuzen ere, 172 lagun daude lan barik.



ARRASATE PRESS

Oraingo astean fuel-olioa ateratzeko lanean ibili dira, eta dagoeneko 85.000 litro atera dituzte.

HIRIGINTZA/ Fuel-olio gehiago aurkitu dute Zerrajerako lurretan

Fuel-olioa Zerrajerako amesgaizto bilakatzen dabil

UBANE MADERA

Erregai biltegi gehiago aurkitu dituzte Zerrajerako lurretan. Oraingoan, hiru biltegi aurkitu dituzte. Horietako bat lehen aurkitutakoak baino handiagoa da. Eta horrez gainera, ikusita-koaren arabera, biltegiak apurtuta daude, eta olioak kanpora aterata da.

Ez dator ez albiste onik Zerrajerako lurretatik. Oraingoan, aurreko aldian baino arazo handiagoa sortu da han. Izan ere, fuel-olio biltegi gehiago aurkitzeaz gain, biltegiak zulatuta daude, eta erregaiak kanpora aterata. Horren ondorioz, fuel-olioa batzea oso zaila da, aurreko aldian baino dezente gaitza-

goa. Litekeena da kutsatutako lurrak eraman behar izatea; eta isuria handia bada, akaso lur guztia jaso beharko litzateke. Eta hori egitea prozesu luzea eta garestia da. Horrez gainera, errekara ere joan ei da olioak, eta ez dakite nondik. Hala adierazi dio Udaleko Ingurumen teknikari Joseba Ugaldek Arrasate Irratiari.

HIRU BILTEGI ETA LITRO GEHIAGO

Lehen esandako moduan, hiru biltegi aurkitu dituzte oraingoan Zerrajeran. Bata Arrasate Musikalen inguruan, beste bat apur bat beherago; eta hirugarrena ia torloju-lantegian. Gainera, biltegi horietako bat lehenago aurkitutakoak baino handiagoa da. Oraingo astean, esaterako, fuela

ateratzeko lanak egiten ibili dira eta dagoeneko 85.000 litro atera dituzte: 18.000 litro aurreko aldian, 17.000 litro bigarrenean eta 50.000 litro hirugarrenean (atzo, eguna).

Era berean, badirudi biltegi gehiago egotea lurperatuta eta baita ere olio betetako bidioiak edo ontziak. Joseba Ugaldek adierazitakoaren arabera, hala diote berari emandako planoek. Hori guztiori jakiteko azterketak (laginak) egiten dabilta egunotan Udala eta IHOBE; baina, oraingoz ez dute ezer aurkitu. Hortaz, hori egiten segituko dute

Bestalde, Zerrajeran eraikiko dituzten etxebizitzaren gainean, adierazi digu erregaiaren arazok ez duela atzerapenik eragingo.

Nekazari auzoetako alkateak aukeratu dituzte lau urterako

U.M.

San Andres eta Udala nekazari-auzoek izan ezik, gainerakoek datozen lau urteotarako alkateak aukeratu dituzte. Dena dela, erabakia ez da behin betikoa; orain, alkateak berretsi egin beharko du.

Poliki-poliki, Arrasateko nekazari-auzoetan alkate berriak aukeratu dabilta. Hala egin ohi dute Udalak agintaldi berri bati ekiten dionean, eta Zerbitzu, Mantentze eta Auzo batzordetik jakinarazi digutenez, Arrasaten, aukeratu dituzte nekazari-auzo-

etako alkate guztiak, San Andreskoa eta Udalakoa izan ezik.

ERABAKIAK BERRETSI EGIN BEHAR

Nekazari-auzoetako alkateak ez dituzte politika irizpideen arabera aukeratu; auzotarrek aukeratu dituzte, agintaldi berria hasten denean. Hori bai, aukeraketa egin ostean, alkatearen berrestea behar dute auzoetan hartutako erabaki horiek, eta gero, osoko bilkuran landu behar egin dituzte. Hori oraindik ez dute egin alkateen izendapen berriekin. Horren ondorioz, esan beharra dago izendapenok behin-behinekoak direla,

harik eta alkateak erabakia berretsi arte.

ALKATEEN IZENAK

Kontuak kontu, izen berriak ditugu zenbait auzotan. Gesalibarren, Loreto Nafarrate José Ramon Askasibarren orde; Bedoñan, Antxon Ugalde Esteban Aranaren orde; Musakolan, Fermin Aginagalde Esperanza Agiriano orde; Garagartzan, Jose Mari Etxagibeleg Karmel Urribarren. Eta gainerakoetan oraingok segituko dute: Urribarrin, Jone Bergaretxek; Meatzerrekan, Inazio Zuazubiskarrek eta Zaldibarrin, Joseba Lazkanoiturburuk.

Urte bukaeran zozkatuko dituzte babes ofizialeko etxeak

ARRASATE PRESS

Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketan jende gehiagok parte hartu ahal izango du orain. Kontua da zozketa horretan parte hartzeko baldintzak malgutu egin dituztela. Abenduan egingo dute zozketa.

Oraingoan, babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko zozketan parte hartzeko, interesatuek asko jota 3.000 euro eta 12.000 euro pasatxoren artean irabazi behar zuten urtean. Oraingoan, berriz, VISESA izeneko enpresa publikoak hartu du etxebizitza horien ardurak, eta baldintza zabalagoak ipini ditu. Horren arabera, 3.000

euro eta 18.000 euro pasatxoren artean irabazi beharra dago mota horretako etxebizitza bat eskuratzeko. Hala, erabaki horri esker, orain, lagun gehiagok parte har dezake babes ofizialeko etxebizitzaren zozketan.

GABONETAN IZANGO DA

Hain justu ere, Zerrajerako etxebizitzari dagokienez, abenduan 100 etxebizitza zozkatuko dituzte, alokairuan hartzeko. Hala, orain arte 160 lagunek parte har dezakeen zozketan; aldiz, orain, 400 lagunek izango dute aukera hori. Bestalde, leku berean egingo dituzten babes ofizialeko etxeak erosteko zozketa maiatzean izango da.



U.M.

Maiatzean babes ofizialeko etxeak erosteko zozketa egingo dute.

LABUR

Datorren astelehenean, hilak 20, osoko bilkura egingo dute, ordenantza fiskalak lantzeko

Ez ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzarrak datorren astelehenean, hilak 20. Hain zuzen ere, urtero moduan, datorren urterako ordenantza fiskalak aztertu, eta ados egonez gero, onartu beharko dituzte. Ordenantza fiskalek herriko zergak, prezio publikoak eta antzerakoak arautzen dituzte. Azkenaldian izan den moduan, astelehenean 09:00etan hasiko da batzar hori.

PSE-EEko eta PPko udal zinegotziak euskara ikasten hasi dira lehenengo aldiz

PSE-EEko eta PPko zinegotzi guztiak euskara ikasten hasi dira. Horrelako zerbait egiten duten aurreko aldian da. PSE-EEko bozeramaile Paco Garciak esandakoaren arabera, behin baino gehiagotan egin diote eskaera hori Arrasateko Udalari, baina, oraindik ez dute baieztatu korik jaso. Oraingoan, baieztatu esku artean, helburu bat jarri diote euren buruari: behintzat, euskara ondo ulertzen ikastea.

Jose Maria Arizmendiarrrietaren gaineko biografia idazten hasi da historialari bat

Arrasateko kooperatibismoaren sortzailearen gaineko liburu bat idazten dabil Fernando Molina historialari bilbotarra, haren gaineko biografia, alegia. Hain justu, orain, ikerkuntza lana egiten dabil; eta horrekin lotuta dei bat egin dute: Arizmendiarrrietarekin lotutako edozein dokumentu izanez gero, Aretxabaletako Otarora etxera deitzeko. Liburua bi urte barru plazaratuko dute.

KARKABALEKOAK LEHENGO DENBORAK GOGORATZEN

Karkabal elkarteok egun pasa polita egin zuten joan den zapatuan. Meza entzun eta gero, elkarteak lagunak Araotzera joan ziren. Han, gaztetako kontuak gogoratu zituzten, hainbat jolas egin zituzten: pilotan ibili ziren (a fulean ibili ziren) eta dokean ere egin zuten. Gura beste bat egin eta gero, bazkaria egin zuten Urriagainen, eta bazkariarekin: mahainguruko solasaldiak, kantuak, mus txapelketa...



TXAPELDUNEN LIGAN REALA ANIMATZERA JOAN ZIRENAK NIHATEKIN HARRITUTA

Txapelidunen Ligako lehenengo norgehiagoka etxean jokatu eta gero, Realzale asko animatu zen bigarren partidua ikusteko Turkiaraino joatera; Galatasarayren kontrako partidua zuzen-zuzenean ikustera, alegia. Ander Ugalde mondragoetarra da Realzale horietako bat, eta Turkian egin zituen lau egunak ondo baino hobeto aprobetxatu zituen. Lagun asko egin zituen han, eta Istanbul ezagutzeko aukera izateaz gain, Realaren garaipena harmailetan bizi izateko aukera ere izan zuen. Istanbulen izan ziren Realzaleak harrিতuta geratu ziren Nihat jokalaririk duen oihartzunarekin; leku guztietan daude Nihatzen argazkiak, baita bere izena daramaten Realeko kamisetak ere. Ezaguna egin da Real; Turkian, bai, behintzat.



GARAGARTZAKO SANMIELETAKO OTARRA, PATXI BONGOARENDAKO

Aurtengo Sanmiel jaietako otarra argazkian azaltzen den Patxi Bengoak eskuratu zuen. Otarraren zozketa irailaren 28an egin zuten, eta 309 zenbakia izan zen saritua. Otarra jenero mordoarekin zegoen beteta, eta dakigunez, ordutik hona Patxi ez du erosketarik egiteko beharrik izan, otarrean zetorren guztia jateko nahiko denbora beharko du-eta. Denbora behar izateaz gain, laguntza ere izango du, ondoan dituen gaztetxoak jatun onak direla esan digute-eta. Sari banaketa Patxisena baserrian egin zuten. Guztira 1.200 txartel saldu zituzten. Argi dago, beraz, Sanmieletan buzkantzak baino askoz ere gauza gehiago izan zirela Garagartzan.

ARRASATE KIROL PROIEKTUA



ARRASATE PRESS

Aurten ere neskek areto futbolean egingo dute; mutilek, berriz, 8ko futbola egiteko aukera izango dute Ibarra futbol zelaietan.

ARRASATE KIROL PROIEKTUA

AKPk oraingo asteburuan egingo ditu ikasturteko lehenengo ekintzak

Aurrekiroleko neska-mutikoez minieskubaloia egingo dute; multikirolekoek, minisaskibaloia

XABIER URZELAI / AKP

AKPko neska-mutikoez oraingo asteburuan egingo dituzte ikasturteko lehenengo jarduerak. Hasi dute ikasturtea, eta kirol arloan ez dira atzean geratuko. Aurten, gainera, berritasun asko izango dira, baina Aretxabaletakoekin eta Eskoriatzakoekin egingo duten bateratze prozesua da garrantzitsua.

Arrasate Kirol Proiektuko kideak aspaldi hasi ziren lanean, ikasturtea prestatzen. Prestatutako guztia, baina, praktikan jarri behar dute orain, eta ikasturte osoa dute hori guztia egiteko. Aurten 13 urte egingo ditu AKPk, eta berritasun askoko ikasturtea izango da.

Oraingo asteburuan aurrekiroleko eta multikiroleko gazte txoak hasiko dira. Infantil mailako neska-mutikoez, berriz, itxaron egin beharko dute, geroago hasiko dira-eta. Lehen esan bezala, aurtengo berritasun garrantzitsuetako bat bateratze prozesua izango da; orain arte, Arrasateko eta Aramaioko neska-mutikoez egin dute lan AKPkoekin. Aurten, berriz, Aretxabaletako eta Eskoriatzako gazte txoak batuko zaizkie.

Bateratze prozesu horrek aldaketa asko ekarriko ditu, eta AKPko monitoreek argi dute

aldaketa horiek onerako izango direla, beste gauza batzuen artean, txapelketek indarra hartuko dute-eta.


BATERATZE PROZESUA

Bateratze prozesua ezberdina izango da maila bakoitzean. Infantil mailan, ikasturtea antolatzerako orduan ez da aldaketa nabarmenik izango. Aretxabaletako eta Eskoriatzako neska-mutikoez aukera handiagoak izango dituzte; izan ere, euren herrietan egiterik ez duten hainbat kirol egin ahal izango dituzte.

Alebin mailan programa bateratua izango dute, eta kirol ezberdinetako partidua herri guztie-

tan jokatu dituzte. Ikasleek kirol aukera zabalagoa izango dute; aukeratutako kirola urte osoan egiteko aukera izango dute eta astean behin kirol elkarteekin entrenatuko dira.

Bateratze prozesuarekin gainerako mailetan ere abantaila asko izango dira. Ikasturteko ekintzez gainera, ekintza bereziak ere egingo dituzte aurten: mendi irteerak izango dira; Tau Baskoniarekin duten hitzarmenak aurrera egingo du; Coca Cola Txapelketan hartuko dute parte; hitzaldiak egingo dituzte... Ikasturtean barrena horren guztiaren gaineko informazio zehatza izango dute gurasoek.



ARRASATE PRESS

Ikasturteko ekintzen gain, aurten ere ekintza bereziak egingo dituzte.

Hilak 23 eta 24: Zaldibarren izena emateko egunak

X.U.

Zaldibarko Txapelketa hasteko gero eta gutxiago geratzen da, azaroaren 1ean hasiko da-eta. Txapelketaren gainean berba egiteko batzarra egingo dute astelehenean, hilaren 20an, eta interesa duen edonor joan daiteke batzarrera.

Datorren astelehenean, hilaren 20an, Zaldibarko Txapelketako antolatzaileek batzarra egingo dute gaztetxean. Batzarra 18:00etan egingo dute, eta aurtengo Zaldibarko Txapelketaren gainean egingo dute berba.


Antolatzaileek argi dute horrelako batzarretan gero eta jende gehiagok parte hartzen badu, batzarrak aberasgarriagoak izango direla, eta errazagoa izango dela hartuko diren erabakiak denon gustukoak izatea.

Izan ere, hori da aurtengo txapelketako antolatzaileen helburuetako bat: horrelako batzarretan talde guztiek ordezkariren bat izatea. Asteleheneko batzarrean aurtengo txapelketaren gaineko hainbat erabaki garrantzitsu hartuko dituzte: arautegi berria, zigorrak, eta abar.

IZENA EMATEKO EPEA

Zaldibarko Txapelketa azaroaren 1ean hasiko da. Parte hartu gura duten taldeek, berriz, datorren astean eman beharko dute izena. Antolatzaileak egunean eta egubakoitzean (hilak 23 eta 24) Monterronen izango dira, 19:00etatik 20:00etara.


Horrenbestez, bi asteburu barru hasiko da aurtengo Zaldibarko Txapelketa. Ganorazko txapelketa izan dadin, baina, guztion laguntza beharko dute antolatzaileek. Astelehenean, batzarra.



ARRASATE PRESS

Azaroaren 1ean hasiko da aurtengo Zaldibarko Txapelketa.

FOTOKIROLA



Arrasate, Gipuzkoako Txapelketan

Arrasateko pilotariak hasi dira dagoeneko Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko. Zugastik pilota utzi du; Lazkano, berriz, eskuz banaka dabil. Bikoteka, berriz, Uribarrenek eta Agirrek defendatuko dute Arrasate. Horiek dira Arrasateren ordezkaririk senior mailan, eta gazte mailan ez dago pilotaririk. Ezin esan daiteke Arrasateko pilota sasoi onean dagoenik. /X.U.

ARRASATEKO 2003-04 DENBORALDIKO LEHENENGO TERRITORIAL MAILAKO ESKUBALOI TALDEA

AGR Arrasatek gol bateko aldeagatik galdu zuen denboraldiko lehen partidua

Arrasateko mutilek ez zuten jaurtiketetan asmatu; aurten ere goiko postuetan egon gura badute oraindik lan handia dute egiteko

XABIER URZELAI

AGR Arrasatek ez du gura bezala hasi Liga Txapelketa. Mondragoetarrek 22-23 galdu zuten usurbildarren kontra. Arrasateko taldeak ondo defendatu zuen, baina hutsegite asko egin zituen erasoan, eta horrek erabaki zuen norgehiagoka. Askok dute hobetzeko, baina dena ez zen txarra izan.

AGR Arrasatek ezin izan du denboraldia ondo hasi. Mondragoetarrek Usurbil hartu zuten domekan Gipuzkoako Ligako lehenengo jardunaldian, eta gol bakarragatik izan bazen ere, Pitxi Herreoren mutilek amore eman zuten. Etxeko taldearen jokoa ikusita argi geratu zen ez dutela gura moduko aurrendenboraldirik egin, eta oraindik erritmoa falta zaiela. AGRk ez zuen maila onik eman; aurreko urteotan punta-puntan egotera eraman dituen maila, alegia.

MARKAGAILUAN AURRETIK

Norgehiagoka galdu egin bazuen ere, Arrasateko taldea aurretik izan zen partiduko minutu gehientsuenetan. Mondragoetarrek huts asko egin zituzten era-

soan, baina defentsan lan ona egin zuten. Horri esker, deskantsuan, alde txikiagatik bazen ere, Arrasate zen aurretik markagailuan. Bigarren zatian AGRk ez zuen ondo eraso egin. Horrez gain, defentsan erakutsitako mailak behera egin zuten, eta usurbildarrek ondo baino hobeto aprobetxatu zuten hori (23-24).

Bigarren territorial mailan, Arrasate B eta Arrasate C taldeek derbia jokatu zuten. Gazteek nagusiek baino hobeto jokatu zuten, eta Arrasate C nagusitu zen (20-22). Gazte mailan, Gatz Museoa Jakion talde arrasatearrak 22-18 irabazi zion Legazpiri; kadeetek, berriz, erraz irabazi zioten Leitzarani (30-11).

ORAINGO ASTEBURUKO PARTIDUAK


AGR Arrasatek domeka goizean (11:15ean) jokatuko du Hegialde taldearen kontra, Legazpin. Arrasate B taldeak Zumaian jokatuko du domeka goizean (09:30ean) Pulpo taldearen kontra. Arrasate C taldeak Musakolan jokatuko du zapatu arratsaldean (16:30ean) Oreretako Ereintza taldearen kontra. Gazte mailakoek ere Ereintza izango dute kontrario, eta horiek 18:00etan jokatuko dute, Musakolan.



AGR taldeak defendatuko du Arrasate lehenengo territorial mailan.

XABIER URZELAI

AGR ARRASATE ESKUBALOI TALDEA



Jesus Mari Herrero
Entrenatzailea




Jose Luis Izasmendia
Delegatua



Gorka Beitia
Delegatua



Igor Eraña
Atezaina



Aitor Txabarri
Atezaina



Jonan Ezkibel
Erdilaria



Kepa Izasmendi
Erdilaria



Eneko Garcia
Hegalekoa



Ander Garcia
Hegalekoa



Nestor Galleja
Hegalekoa



Ander Agiriano
Mutur-hegalekoa



Jon Urrutia
Mutur-hegalekoa



Aitor Garcia
Mutur-hegalekoa



Gorka Arando
Mutur-hegalekoa



Ruben Espeso
Pibotea



Iker Otegi
Pibotea



Manuel Carrasco
Pibotea

Beti Gazteri erraz irabazita (4-0) Mondra da preferenteko liderra

XABIER URZELAI

Zapatuko partidua ikusita, gaitza da ulertzea erregional mailako finalean Mondrak zelan galdu zuen Beti Gazteren kontra. Zapatuan talde bakarra izan zen Atxabalpen, talde bakarrak jokatu zuen ondo, eta talde bakarrak egin zituen golak; Mondrak, alegia.

Beti Gazteren kontra Josu Zubia-
ren mutilek erakustaldia egin

zuten. Preferente mailan gutxi-
tan izango dute horren lasai joka-
tzeko aukera, Beti Gaztek ez zuen-
eta preferente mailako talde
baten itxura eman. Lehenengo
minututik azkenera arte lesaka-
rrak galduta ibili ziren, eta Mon-
drak ondo aprobetxatu zuen hori.

Partiduko lehen gola Ekai-
nek egin zuen, Joan den astean
bezala, besteak baino argiago ibi-
li zen Ekain, eta area txikian
zegoela, takoiarekin baloia sare
artera bidaltzea lortu zuen.

MURUAK HIRU GOL

Norgehiagoka zelan zegoen iku-
sita, aurrelariak gozatzeko
apropos prestatutako nor-
gehiagoka zirudien. Gaizki era-
so egiteaz gain, lesakarrek
defendatu ere ez zuten ondo
egin, eta Jon Muruak ez ditu
horrelako aukerak galtzen,
aspaldian ez, behintzat. Bere-
hala egin zuen norgehiagokako
bigarren gola, eta lehenengo
zattia amaitu aurretik baita
hirugarrena ere (3-0).

Atsedendia ostean gau-
zak ez ziren askorik aldatu.
Josu Zubiak bost aldaketa egin
zituen, baina Mondraren joko-
ak ez zuen behera egin. Beti
Gaztek bigarren zatian ez zuen
erreakzionatzeko indarririk era-
kutsi, eta Mondrak lasai joka-
tzen jarraitu zuen. Muruak ez
zuen nahikoa ordura arte egin-
dako bi golekin, eta *hat-trick*-a
egitea lortu zuen (4-0).

Aurreko zapatuan lortutako
hiru puntuekin Mondra prefe-
rente mailako liderra da. Arra-
sateko taldeak 18 puntutatik 13
eskuratu ditu, eta martxa horre-
tan azkar baino azkarrago lor-
tuko ditu mailari eusteko behar
dituen 45 puntuak. Hori, baina,
ez da Mondraren aurtengo hel-
burua.



OLAIA MONDRAGON

Mondrak Trintxerperen kontra jokatu du asteburuan.

FOTOKIROLA



Beteranoen hiruko torneoa Garagartzan

Arrasateko Errugbi Taldeko beteranoek lagunarteko torneoa antolatu dute biharko. Arrasateko Herensugeek Marbellako bete-
rano taldea eta Frantziako Archivald taldea gonbidatu dituzte.
Bihar, 16:00etan, hiruko torneoa egongo da ikusgai Garagar-
tzan. Marbellakoak, baina, gaur arratsaldean iritsiko dira Arra-
satera. Inguruak bisitatu eta gero, Aramaioko sagardotegian
afalduko dute. Frantziarrak, berriz, bihar goizean iritsiko dira,
eta torneoa jokatu eta gero Arrasaten geratuko dira. /X.U.

FOTOKIROLA



Gipuzkoako Emakumeen Karate Txapelketan maila ona

Joan den asteburuan Gipuzkoako Emakumeen Karate Txapelketa jokatu zuten, eta Arrasateko kara-
tekek maila ona erakutsi zuten. Infantil mailan, Zahara Galan sekulako trebezia erakutsita lehena
sailkatu zen. Eider Bidaburuk lan ona egin zuen, eta lehenengo bost nesken artean sailkatu zen.
Eztibalitz Azkoaga ere ondo ibili zen, eta lehenengo hamarren artean sailkatu zen. Alebin mailan,
Maialen Calderon hirugarrena izan zen, eta Ane Sanchezek eta Zuriñe Muxikak maila polita era-
kutsi zuten. Benjamen mailan, Marta Nuin izan zen onenetakoa, baina urduritasuna zela-eta akats
txiki bat egin zuen eta ezin izan zuen lehenengo hiru nesken artean sailkatu. Oraingo domekan
Arrasateko 10 karateka izango dira 14 urtetik gorako Gipuzkoako Txapelketan. /X.U.

Ointxe Arrasatek jipoi ederra eman zien nafarrei (105-87)

X.U.

Ointxe Arrasate Saskibalo
Taldea sekulako erakustaldia
egin zuen zapatuan Iturripen.
Gorka Zurutzak zuzendu zuen
taldeak egur galanta eman
zion Antonio Erro y Eugi talde
nafarriari. Ointxe Arrasatek
taldeko jokoa egin zuen, eta
erraz gailendu zen.

Ointxe Arrasate Saskibalo Tal-
deak zalantza askorekin hasi zuen
Liga Txapelketa. Apurka-apurka,
baina, hasi dira txapelketari neu-
rria hartzen. Etxean jokatu dituz-
ten bi norgehiagokak irabazi egin
dituzte, eta zapatuan erakustal-
dia eginda, gainera.

TALDEKO JOKOA

Antonio Erro y Eugi taldeko Juan
Uriz jokalaria azpimarratzeko
lana egin zuen. Arrasatek, berriz,
taldeko jokoa egin zuen, eta
horrek emaitza ona eman zien
Zurutuzaren mutilei. Defentsan
lan azpimarragarria egin barik,
erasorako sekulako abilezia era-
kutsi zuten Ointxeok: Gama-
rrak hiruko zazpi saskiratze egin
zituen, eta Kintanak beste hiru.
Horrekin batera, Txitxo Ziarso-
lo bergararrak kantxa barrutik
bikain gidatu zuen taldea.

Arrasateko taldea hasieratik

hasi zen ondo jokatzeko. Lehe-
nengo laurdenaren amaieran Oin-
txek 13 puntuko aldea zuen (32-
19). Bigarren zatian amaieran
Arrasateko taldeak ez zuen mar-
kagailuko aldea handitu (52-44);
neurri handi baten Juan Uriz
jokalaria nafarrek egindako par-
tidu biribilari esker.

AZKEN BI LAURDENETAN, BIKAIN

Nafarren entrenatzaileak alda-
keta asko egiten zituen defen-
tsan, eta defentsa hori apurtzea
ez zen lan erraza izan. Arrasate-
koak, baina, ez ziren urduri jarri;
ez jokalaria ezta aulkian zeu-
denak ere. Hirugarren laurde-
nean Ointxek ondo eutsi zion par-
tiduari, eta markagailuko aldea
ez zen txikitu (74-65). Laugarren
laurdena izan zen ikusgarriena:
erasoan izandako bolada on batek
talde nafarra apurtuta utzi zuen
(105-87).

ASTEBURUAN, DERBIA

Oraingo asteburuan Ointxe Arra-
satek berriz ere Iturripen joka-
tuko du. Norgehiagoka ez da bate-
re erraza izango, liderra etorri-
ko da-eta Arrasatera. Cafes
Aitona Askatuak punta-puntako
taldea da, eta ikusi egin beharko
da Ointxe Arrasatek zelan erant-
zuten duen. Ea jarraitzaileek ere
ondo erantzuten duten.

IKASTAROA / Ekin Emakumeak elkarteak hastapen mailako jostintza tailerra eta sukaldaritza ikastaroa antolatu ditu

Ekin Emakumeak elkarteak, besteak beste, gizonezkoentzako ikastaro bi antolatu ditu

IKER BARANDIARAN

Ekin Emakumeak elkarteak gogor hasi du ikasturtea, eta hainbat ikastaro antolatu ditu. Eskolak azaroan hasiko dira, eta gizonezkoentzako eta emakumezkoentzako izango dira. Hastapen mailako jostintza tailerra eta sukaldaritza ikastaroa nabarmendu dituzte.

Orain dela gutxi, Ekin Emakumeak elkarteak ikasturte honetan antolatu dituen ikastaroak iragarri zituen; besteak beste, aretoko dantzak, eskulanak, eta orratz lanak. Horrez gainera, urtean hainbat txango egingo dituzte eta herriko jaietan talo goxokoak prestatuko dituzte.

GIZONEZKOEI ERE ZUZENDUTA

Ekin Emakumeak elkartearen ikastaroak eta ekintzak batez ere emakumeei zuzentzen dizkiete. Hala ere, oraingoan, emakumez gainera gizonezkoentzako proposak izango diren ikastaro bi antolatu dituzte: hastapen mailako jostintza tailerra eta hastapen mailako sukaldaritza ikas-

taroa, hain zuzen ere.

Ekin Emakumeak elkarteko arduradun Leire Aperribaik honako hau azaldu zuen: "Jostintza tailerrera eta sukaldaritza ikastarora joango diren gizonek euren kabuz baliatzen ikasiko dute, eta bide batez, euren inguruko emakumeei bakea emango diete".

Hastapen mailako jostintza tailerra azaroaren 10ean, 12an eta 13an egingo dute. 10-12 lagunekko taldea osatu gura dute. 18:00etatik 20:00etara oinarrizkoa ikasiko dute: botoiak eta kremaileak ipini, barrenak zelan hartu, errepassoak zelan egin... Eskolak Ekin-en egoitzan egingo dituzte -Pablo Urangan-, eta urriaren 31 aurretik eman behar da izena.

Sukaldaritza ikastaroa, berriz, azaroaren 17an hasiko da eta abenduaren 4an bukatu. Hamabost laguneko taldea osatu gura dute, eta ezer ez edo gutxi dakitenei zuzenduta dago. 19:00etatik 21:00etara, lehen platera, bigarrena eta postrea egiten ikasiko dute. Urriaren 31 aurretik eman behar da izena.



Gizonezko askok janaria prestatzen ikasteko premia handia dute.

BERRIGARA



Haur,
emakume eta
haurdunaldirako
arropak




UNITED COLORS
OF BENETTON.

Maalako Errabala, 13 • ARRASATE • 943 79 50 78

ZAPATU ARRATSALDEETAN
ETA ASTELEHEN GOIZETAN
ZABALIK





Aurkezpenean alkatea, Ingurumen Saileko burua eta liburuaren bi egileak izan ziren.

LANDARETZA/ 'Arrasateko txoko naturalak' liburua aurkeztu dute

Udalerriko ekosistemak eta landaretza aztertu dituzte

IKER BARANDIARAN

Urtzi Mendizabalek eta Rosa Agirrebeñak, biak hala biak biologoak, udalerriko landaretza aztertu dute. Azterketan jasotako emaitzak herritarrei aditzera emateko, Arrasateko txoko naturalak liburua argitaratu dute. Astelehenean aurkeztu zuten liburua.

Astelehenean, urriaren 13an, Arrasateko txoko naturalak liburua aurkeztu zuten Monterronen. Ekitaldian Arrasateko alkate Inazio Lakuntza, Udaleko Ingurumen zinegotzi Joseba Ugalde eta liburuaren bi egileak, Urtzi Mendizabal arrasatearra eta Rosa Agirrebeña bergararra, izan ziren.

Liburu horrek Udalaren babesa izan du, eta dagoeneko salgai ipini dute, bederatzi eurotan, herriko hainbat liburu denda-tan. Liburua euskara hutsean egin dute: gehiena euskara batuan idatzita dago, baina tarte batzuk Mondragoeko euskaran daude. Mila ale argitaratu dituzte, eta 101 orrialde ditu.

BALIO NATURALA ADITZERA EMAN

Liburuaren egileek honako hau azpimarratu zuten: "Liburuaren helburu nagusiak dira udalerriko ekosistemen balio naturalaren gaineko emaitzak herritarrei aditzera ematea, eta herri artaren artean ingurumenaren gaineko sensibilizazioa piztea".

Hasieran, bi biologoek, Udalaren laguntzarekin, Arrasateko

ekosistemak eta landaretza azterzea hitzartu zuten. Behin lana bukatuta, erabaki zuten azterketa horren emaitzak liburu baten argitaratzea. Azterketa zientifikoa moldatu egin behar izan zuten, herritarrek errazago uler dezaten.

Urtzi Mendizabalen eta Rosa Agirrebeñaren esanetan, Arrasatek oraindik badu aniztasun biologikoa; hau da, udalerrian dugun ekosistemari eta landaretzari esker, bizi izateko baldintza egokiak ditugula (ur garbia, lur emankorra eta aire garbia).

Hala ere, biologo horiek arduratuta daude, udalerrian bertan eta inguruetan egin gura dituzten azpiegiturak aniztasun biologikoari kalte handia egingo diotela. Horregatik, aholkatu dute halako azpiegiturak egitekotan inpaktu txikikoak izatea.

Azterketa zientifikoa moldatu egin behar izan dute, irakurleek errazago uler dezaten

"Daukagun ekosistemari esker, Arrasaten, oraindik, bizi izateko baldintza egokiak ditugu"

Txokoak aurkitzeko mapa

Arrasateko txoko naturalak liburua hainbat kapitulu-tan banatuta dago. Lehenik eta behin, arrasatearren sustraiaren gaineko gogoeta egiten dute, Lezetxiki gogoraraziz. Jarraian, udalerrian aurki daitezkeen txoko naturalak banan-banan deskribatzen ditu. Egileek honako hau azpimarratu zuten aurkezpenean: Mediterraneoko kliman egoten diren landare-espezie motak aurkitu dituztela.

Arrasateko txoko natural horiek non dauden kokatuta jakiteko mapa zehatza egin dute. Eta herritar guztiei honako aholkua egin diete: liburua irakurri ostean, mendira jotzea eta udalerrian dauden txoko natural horiek ezagutzea.

Idoia Ibañez artisauak stand apainketaren saria jaso zuen

I.B.

Joan den asteburuan, Idoia Ibañez artisau arrasatearrak stand apainketaren hirugarren saria jaso zuen Ordiziako azokan. Idoia Ibañezek urte asko daramatza, azokaz azoka, eskulangintzan.

Idoia Ibañez arrasatearra artisau beteteranoa da. Izan ere, 22 urte zituenetik eskulangintzan dihardu buru-belarri (egun 39 urte ditu). Gipuzkoako Artisauen Elkarte (Gabilta) partaidea da, eta aspalditik azokaz azoka dabil.

Joan den asteburuan, Ordiziako azoka nagusian, Idoia Ibañezek stand apainketaren hirugarren saria jaso zuen. Ez da lehenengo aldia Idoiak azoka horretan sariren bat jasotzen duena. Orain dela lau urte, bigarren saria eman zioten. Epaimahaiak honako ezaugarriak hartu zituen kontuan: besteak beste, standean salneurriak ipintzeko modua eta Idoiak erakusgai ipini zituen gauzak. Hori izan da, batez ere, aurtengo epaimahaiak aintzat hartu duena.

Idoia Ibañez oso gaztetan hasi zen eskulangintzan. Alanbre eta aliketarekin lanean hasi zen. Geroago, larrua lantzen ikasi zuen, baita makramea eta ehoziri-lana egiten ere. Hasi zenean ez zuen eskulangintzatik bizi izaterik espero. Baina, 22 urterekin, lanbide horrekin aurrera egitea erabaki zuen.

AZOKETAN SALDU ETA ESKOLAK EMAN

Idoia Ibañezek argi eta garbi esan zigun artisautzatik bizi izatea oso zaila dela. Euskal Herriko azoketan saltzeaz gain, eskulangintza eskolak eman behar izaten ditu. Iraganean, Arrasateko Familia Heziketako zentroan eman zituen eskolak. Hura itxi zutenean, herriko erretiratuen bi elkartetan -Uribarrin eta Toki Argin- hasi zen. Horrez gain, Eskoriatzako Amuska emakume elkartearen ehoziri-lanen eskolak ematen ditu.

Ehoziri-lana egiten ikasi zutenean, ez zuen horretan lan egiterik espero, baina eskaera egon badago, eta horren eskolak ematen ditu. Dena dela, gazte gehiagori ehoziri-lana egiteko gonbita egin gura die.



Idoia Ibañez Arrasateko artisau beteteranoetako bat da.

RIP musika taldeko abeslari 'Mahoma' hil egin da

I.B.

Astelehenean, Karlos Agirreurreta Mahoma hilda aurkitu zuten Bilbon, etxean. 44 urte zituen eta oso ezaguna zen Arrasaten, batik bat urtetan RIP musika taldeko abeslaria izan zelako. Hutsune handia utzi du Mahoma-k.

70eko hamarkadan, lau arrasatearrek Doble Cero taldea sortu zuten. Abeslariak, Mallabi-k, soldadutzara joan behar izan zuen. Taldekoek Mahoma-ri gonbita egin zioten, eta RIP taldea sortu

zuten. Horrela hasi zen hain esanguratsua bilakatu den talde horren historia.

ABESLARIA ETA AUTOBUS GIDARIA

Orain dela bi urte, Karlosek honako hau esan zuen: "RIPek ez du inoiz agurrik esan". Egia esanda, RIPek 80ko hamarkadan atsedean hartu zuen arren, tarteka kontzertuak egin dituzte, eta 90eko hamarkadan jendetza handia -artean gazte asko- joan zen taldea zuzenean ikustera.

Karlosek musika eta autobus gidari lana uztartzen zituen, eta aspaldian Bilbon bizi zen.

E, TXO!

GUREGAIK / GAZTETXEAREN WEBGUNEA

AGAKOk abian ipini du Arrasateko gaztetxearen webgunea

IKER BARANDIARAN


Arrasate gazte batzarreko (AGAKO) komunikazio taldeak Arrasateko gaztetxearen webgunea ipini du abian. Horren bitartez, gaztetxea eta han egiten diren ekintzak ezagutzera eman gura dituzte.

Webguneak diseinu argia du, irakurtzeko erraza da eta sarri gaurkotu gura dute

Arrasateko gazte batzarra oso fin dabil, eta horra hor udatik hona prestatzen ibili den lanaren emaitza: hain zuzen ere, gaztetxearen webgunea ipini dute abian.

Gazte batzarreko komunikazio taldea arduratu da lan horretaz. Udan hasi ziren eta dagoeneko bukatu dute egin beharrekoa. Webgunera sartzeko *arrasatekogaztetxea.com* idatzi beharra dago. Zera aurkituko duzue Arrasateko gaztetxeko helbide horretara sartuta: gaztetxeko batzarra zelan dagoen egituratuta, hau da, bere baitan zein azpitalde dituen; AGAKOren beraren historia –egin dituen

ekitaldi guztiak–, 1991tik gaur egunera arte; gaztetxearen solairu bakoitzeko argazkiak eta bideoak; beste gaztetxe batzuen webguneekin eta komunikabideekin egindako loturak; iraganean herrian izan diren beste bi gaztetxeen argazkiak; Arrasateko eta gainerako herrietako gaztetxeen gainerako berriak; AGAKOk berak kaleratutako materiala –elastikoak, kartelak...–; batzarrek berak kaleratzen duen *Gazta Ya* aldizkariaren edukiak; hilerio antolatutako ekintzak iragartzeko agenda; eta AGAKO-



Oso gaztetxe gutxi dute webgune propioa. Arrasatekoa oso txukuna da.

rekin harremanetan jartzeko argibideak.

TEKNOLOGIA BERRIAK, GAZTEEN ESKU
AGAKOk komunikazio taldeak gaztetxea ezagutzera emateko ahalegin handiagoa egin gura zuen. Eta gaur egungo gazteek teknologia berriak erabiltzeko ohitura handia dutenez, Inter-

neten webgunea sortzea erabaki zuten. Euren esanetan, webguneak diseinu sinplea du, argia eta irakurtzeko erraza da. Horrez gainera, edukiak sarri gaurkottzeko asmoa dute, webguneak bat-batekotasun hori gal ez dezan.

Eduki guztiak euskara hutsean egin dituzte.

Gazte batzarreko hiru kide epaituko dituzte, kartelak ipintzeagatik

Aurtengo ekainean, gazte batzarreko hiru kide Arrasateko alde zaharrean kartelak ipintzen ari zirenean, bi ertzain hurbildu zitzaizkien, identifikazio eske. Azaroaren 12an epaiketa izango dute.

Gazte batzarreko kideak haserre daude. Izan ere, azaroaren 12an hiru kidek epaiketa izango dute Bergaran. Gaztetxeko kartelak kalean ipintzeagatik joan behar dute epaitegira.

Epaituko duten gertaera ekainaren 13an jazo zen. Hain zuzen, Uarkapeko gaztetxea inauguratu

eta egun gutxira, gazte batzarreko hiru kidek gaztetxearen gainerako kartelak ipintzen ibili ziren. Batzokiaren inguruan lan horretan zebiltzala, bi ertzain hurbildu zitzaizkien eta identifikatzeko eskatu zieten. Jarraian, kartel bat kendu zieten eta gainerakoei argazkiak atera zitzaizkien.

FATXADA ZIKINTZEA

Handik egun gutxira, 00:00etan, gazte horietako baten etxera joan ziren ertzain bi, eta hurrengo astean epaiketa izango zutela eman zioten aditzera. Biharamunean, ostera, telefonoz deitu zioten, epaiketa atzeratu egin zela

esateko. Uztail erdialdean, berriz, Arrasateko Bake Epaitegitik gutun bana jaso zuten, epaiketa atzeratu egin zela esateko.

Irailaren bukaeran epaiketaren behin betiko eguna zehaztu zieten: azaroaren 12an, Bergaran, 10:15ean.

Hala, gazteak haserre daude, eta harremanetan jarri dira Udalarekin, haren jarrera zein den jakiteko. Horrez gain, herriko hainbat elkarterekin ere izan dituzte harremanak.

Gazteen esanetan, Arrasateko erdialdean ez dago kartelak ipintzeko leku aproposik, eta uste dute epaiketak ez duela zentzurik.



Argazkian agertzen diren kartelak alde zaharrean ipintzeagatik dute epaiketa.

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Mobiliario ARENAZA
- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

MADINA ZURAK
Aroztegia
• Olak
• Aglomeratuak
• Kontratxapatuak
• Tablexa
• Ateak
• Egurrezko leihoak
• Oin-inguruak
• Zangoak
• Aroztegiko osagarriak
Urbarri auzoa B-2 B S3 sektorea
• Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

BEHEKODENDATIK

Mari Carmen Dorronsoro

IKER DENDAKUE

XABIER URZELAI

Mari Carmen eta bere gizona oin dala 24 urte hasi zien negozio horretan lanien. Enpresie sortu euenien seme gaztiena jaixo zan, Iker. Hasieran, baiñe, sukaldiekin hasi zien, eta 1986an zabaldu euen baiñugelen dendie. Mari Carmenek baiñugelekin egitten dau lan, eta gustora dabil, lan hori gustau egitten jako-eta.

Txikittan ze gure zeuen izen?

Ez dakit, ez naz akordetan. Josten abille nitzen, baiñe ez dakit ze gure neuen izen.

Eta, lan hau gustora egitten dozu?

Bai, jentiek tratuen egittie gustetan jatelako.

Drogak legalizauko zeuke?

Drogien kontra egitteko modu onena izengo balitz, bai. Baiñe ez dakit zein dan soluziñue.

Eta prostituziñue?

Hori be gai delikaue da, eta berdin erantzungo dot.

Ibarretxe Plana: ze pentsetan jatzu?

Ezin dot gauza haundirik esan, plan hori gutxi ezaguketan dot-eta.

Nora juengo zitzake gustora?

Ez dauket leku konkreturik; mendixe asko gustetan jat.

Bizio bat?

Ez dauket biziorik.

Etxeko lan gorrotagarriena?

Etxeko lanak gustora egitten ditud.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeinekin?

Ez neuke holakorik egingo.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Kalkuladora barik galdute nau.

Ze irakurriko zeuke gustora

ARRASATE PRESSen? Zirkulaziñuen arazue konpondu egin dala eta herriko lanak bukatu egin dittuela.

Ze lan egitten dozue gehixen?

Sukaldiek eta baiñugelak diseiñau, egin eta kolokau.

Etxie pagetan horrenbeste gastau eta gero, jentiek eukitten



“Diseiño klasikue modernue baiño praktikuaue da, kajoi gehixau eukitten dittu-eta”

dau sukalde edo baiñugela on baten gastetako gogue?

Egixe esatiarren, ikustekue da etxebizitzan preziuek zela dauzen. Hamen modu askotako prespuetuek egitten ditudugu. Klientiekin berba egin eta gero, bada kigu zenbat gastau gure dauen, eta horren arabera egitten dutzegu prespuetue. Batzuk dirue gastetako asmuekin etorten die eta beste batzuk prespueto txikiñau daukie.

Jentiek ze gure dau, diseiño klasikue ala modernue?

Danetik dau. Batzuk aldizkari batetik hartutako argazki batekin etorten die. Kontue da horreitan argazkixotan agerketan dien sukal-

“Klientiek esaten dau zenbat gastau gure dauen, eta horren arabera egitten dogu prespuetue”

de edo baiñugelak ez diela bape praktikuek.

Hortan, diseiño modernue ez da praktikue?

Diseiño klasikue askoz be praktikuaue da. Diseiño modernue bikote batendako ondo dau, baiñe familixa batek kajoi biher ditudu, eta modernuetan kajoi gutxi egoten die.

Sukaldiek jarraiketana dau familixien alkargune izeten?

Bai. Sukaldien denpora luzie egitten dogu, eta familixie hortxe alkarketan da egunero-egunero. Akaso, lehengo etxietan baiño inportantzia txikiñau dauko, baiñe ondiokan be sukaldie oso leku inportantie da.

NIREBIDAIAHURA/ Joxe Migel Landa

Paris-Brest-Paris / 2003ko abuztuan

Bizikleta gainean egiteko bidaia ikusgarria izateaz gain, Paris-Brest-Paris bizikleta ibilaldia baino askoz ere gehiago da. Joxe Migelendako ametsa zen ibilaldi hori egitea, eta abuztuan ametsa egia bilakatu zen. Orain dela zortzi urte ahalegindu zen proba gogor hori egiten, baina belaunetako minak ez zion aurrera egiten utzi. Abuztuan, berriz, 72 orduan egin zituen bizikleta probako 1.225 kilometroak. Hori bai, aurten ere gorriak ikusi ditu.

Bizikleta ibilaldi horretan parte hartzeko, lehenengo beste hainbat ibilaldi egin behar dira. Proba horiek eginda sasoiaren egotea ziurtatzen da, eta orduan ematen dute Paris-Brest-Paris bizikleta proban esku hartzeko aukera: “Aurten ere jende mordoia elkartu gara, 5.000 lagun inguru. Mundu mailako proba da, leku guztietako jendea etorri da-eta”. Proba abuztuaren 17an hasi zuten, 20:00etan. Txirrindulari bakoitzak proba zenbat denboran egingo zuen zehaztu behar zuen: “Hiru aukera zeuden: 80 ordu, 84 ordu edo 90 ordu. Nik 80 ordukoa aukeratu nuen”.

Horrenbeste denbora bizikleta gainean egitea ez da txantxetako kontua: “Paristik Bresteraino ez genuen atsedetik hartu. Errepidea ez da batere ona, eta leher eginda iritsi ginen. Bresten bi ordu lo egin eta berriro geunden bizikleta gainean”. Astelehenean hasi zuten proba eta eguenean amaitu: “Horrelako probetan kontura daiteke buruak zenbaterainoko garrantzia daukan; hark agintzen du. Batzuetan umore onez izaten ginen, baina beste batzuetan mina baino ez genuen sentitzen, eta behera egiten genuen”.

Joxe Migelek arropa gutxirekin egin zuen Brestetik Parisera itzulia: “Gauetan sekulako hotza egiten zuen eta, gainera, arropa neukan motxila auto batean utzi nuen. Larri ibili nintzen; eskerrak arropa utzi zidatela”. Ia lorik egin barik egin zuen Joxe Migelek proba: “Nekeak burua nahasten du, eta askok edozein lekutan egiten zuten lo, telefono kabina barruan, esate baterako”.

XABIER URZELAI



Joxe Migel Landa eta Elorrioko bi lagun, proba hasi aurretik.

“Bizikletako proba hori amaitzea ametsa izan da niretako”

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitez, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

ad Ihabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

ZAHARRAREN ETXETIK



ARRASATE PRESS

Teknologia berriak sartu eta gazteen parte-hartzea bultzatu gura dute Abaroa elkarteko erretiratuek.

Teknologia eta parte-hartze ekimen berriak Abaroa elkartearendako

LEIRE KORTABARRIA

Arrasateko erretiratuek eraikin modernoagoak eta gaur egungo beharrei egokituagoak izango dituzte aurki. Kontua da orain arte ezagutu ditugun erretiratuen zentroak zaharkituta geratu direla, eta ez dutela gizartearekin bat aurrera egin. Egoera hori aldatzeko asmotan dabilta Gipuzkoako erretiratu elkarteak, erakundeen laguntzarekin. Kezka hori planteatuta dago Gipuzkoako Nagusien Kontseiluan. Debagoieneko hainbat kide daude kontseilu horretan; tartean, Abaroa elkarteko presidente Juan Luis Lizarralde.

Abaroaren azpiegiturak hobetzeko asmoa mahai gainean dago orain. Juan Luis Lizarraldek dioskunez, "helburu nagusia da teknologia berriak sartzea. Adibidez, ordenagailuak jarri gura ditugu bazkideon esku; Internet erabiltzen ikasteko aukera eman gura diegu, eta lehen ordenagailua erabiltzen zutenei, horrekin jarraitzeko aukera".

ZENTROAK, GIZARTEARI BEGIRA

Baina ordenagailuak ipintzearekin ez da guztia amaitzen. Helburu sakonago batek du zerikusia erretiratuen zentroek izan duten garapenarekin.

Kontua da Abaroako ardura-dunek berba egin dutela dagoneko LKS enpresarekin, proiektu

Garai berriak, premia berriak

Arrasatekoa ez da kasu bakarra; Bergarako San Josepe elkarteak antzeko proiektu bat lantzen dabil, eta egoera berean daude Gipuzkoako beste elkarte asko. Zergatik aldaketa hori? Batetik, erretiratuen populazioa hazi egin delako azken urteotan; eta, bestetik, euren gaitasun ekonomiko eta kulturala haziz joan den neurrian, behar berriak dituztelako.

tua bideratuko duena. LKSko Patxi Leturia adituak diosku garapen hori "prozesu baten hasiera" dela: "Joan den hamarkadan, zentro hauen helburua zen erretiratuei hainbat zerbitzu merkeago eskaintzea, euren ahalmen ekonomikoaren arabera. Baina, orain, gaitasun hori handiagoa da, eta zentroaren helburuak aldatu egin behar dira".

Juan Luis Lizarraldek gaineratzen duenez, euren nahia da orain zentro horiek "gizarteari begira" jartzea: "Jende berria etor dadin gura dugu. Herriko gazteak ere etor daitezten gura dugu, gizarteak jakin dezala hauek ez direla zaharrendako bakarrik dauden lokalak, baizik eta aukera asko ematen dituztela". Horren ildotik, euren helburuetako bat da, adibidez, gazteekin hainbat ekimen antolatzea: esaterako, erretiratuei ordenagailuz ibiltzen irakasteko jardunaldiak egin eurekin, laguntasun programak antolatu...

Oraingoz proiektu bat da, baina herriko erretiratuek espero dute laster egia bilakatzea.

LABUR

Martxoaren 24an, Toki Argiko erretiratuek Italiara zazpi eguneko txangoa egingo dute

Toki Argi elkarteko erretiratuek Italiara bidaia antolatu dute. Martxoaren 24an irtengo dira Arrasateetik eta hilaren 31n bueltatuko dira herrira. Besteak beste, Niza (Frantzia), Pisa, Florentzia, Siena, Erroma, Padua, Venezia, Milan eta Erroma bisitatuko dituzte. Interesatuak 570 euro ordaindu beharko dituzte.

Interesatuok jo lehenbailehen Toki Argiko bulegora.

Urriaren 23an, Uribarriko erretiratuen elkarteak Kataidera ibilbidea egingo du

Eguenean, urriaren 23an, Uribarriko erretiratuen elkarteak Kataidera ibilbidea egingo du. 16:00etan egin dute hitzordua, elkartearen. Gernika Oinezkoen Zumarditik Zigorrolaraino joko dute, eta han, Eroski pareko zubia inauguratuko dute. Kataideraino helduko dira eta handik Uribarria bueltatuko dira. Gero, elkartearen askaria egingo dute, indarberritzeko.



Abaroa elkartekoak, Lloret de Marren

Orain dela bi aste Abaroa elkarteak Lloret de Marrera txangoa antolatu zuen. Aste osoa egin zuten han, eta inguruko hainbat herri bisitatu zituzten. Abaroako bazkideez gainera, beste elkarte batzuetako hainbat erretiratuek ere eman zuten ize-na. Guztira 127 lagun joan ziren, bi autobusetan.

Erretiratuek oso ondo pasatu zuten, eta Lloret de Marrera bueltatzeko irrikan daude. Argazkikoak Ferralsko hondartzan daude. Besteak beste, Tossa de Marko hondarrak eta Basaluko bainu judutarrak bisitatu zituzten. /A.B.

HASTAPEN MAILAKO
SUKALDARITZA
IKASTAROA

INFORMAZIOA JASO ETA
IZENA EMATEKO...
Urriaren 31a baino lehen
Ekin Emakumeak elkartearen

HASTAPEN MAILAKO
JOSKINTZA
TAILERRA

INFORMAZIOA JASO ETA
IZENA EMATEKO...
Urriaren 31a baino lehen
Ekin Emakumeak elkartearen

Zer da?
12-15 laguneko talde txikian sukaldaritzako era guztietako gaiak ikasiz ondo pasatzeko ikastaroa da. Ezer edo gutxi dakitenendako. Lehen platera, bigarrena eta postrea landuko dituzte.

Noiz?
Azaroaren 17an, 19an, 20an eta 24an, 26an, 27an eta abenduaren 1ean, 3an eta 4an.
19:00etatik 21:00etara.

Zer da?
10-12 laguneko taldetxoan josteko lan txikiak norberak egiten ikasteko eta ondo pasatzeko ikastaroa da. Botoiak eta kremaierak nola jarri, barrenak nola hartu, errepaokak nola egin, eta abar landuko dituzte.

Noiz eta non?
Azaroaren 10ean, 12an eta 13an.
18:00etatik 20:00etara.
Elkartearen, Paulo Uranga 6an - Arrasate.

Antolatzailea:

Ekin

Emakumeak • AED

Paulo Uranga 6, behea-20500
ARRASATE
Tel.: 943798370 / 651707936.

Emakume Saila





ARRASATE
Aroa Etxaniz
Urriaren 19an, 18 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Nahia Irazola
Urriaren 18an, 1 urte. Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Mainer Arrocha
Urriaren 20an, 7 urte. Zorionak! Osaba-izebak eta gurasoak.




ARRASATE
Julen Gartzia
Urriaren 23an, 6 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Jon Mondragon
Urriaren 15ean, 6 urte. Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Izaskun Aranbarri
Urriaren 19an, 21 urte. Zorionak! Olaia, Rakel, Maika eta Vicen. Animo!



ARAMAIO
Manex Arriolabengoa
Urriaren 16an, 11 urte. Zorionak, eta horrela seg! Familiaren partetik.



ARAMAIO
Teresa Arriolabengoa
Urriaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Txomin Arriaran
Urriaren 21ean, 2 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Maialen Garcia
Urriaren 18an, 1 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Irune Altube
Urriaren 17an, 7 urte. Zorionak, zure urtebetetzean! Aitaxo, amatxo eta Jone.



ARAMAIO
Maia Villalba
Urriaren 20an, 3 urte. Zorionak, polit hori! Aita, ama eta familia.



ARRASATE
Ane Vitoria
Urriaren 16an, 13 urte. Zorionak! Kuadrilakoak.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzazu ezusteko ederra! **Doan!**


*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzeari komeni da.

EZETZASMATU



ARRASATE PRESS

Zer dabilta eraikitzen argazkian ikusten duzuen lekuan?
Arrastoa: gaur egun ume asko ibiltzen da han barruan.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Apis tomate birrindua
410 g

3X1€ 166 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

FRANCISCO AZKOAGArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Francisco!
Galderen erantzun zuzena:
Santa Teresa eliza.

ARRASATEKOHISTORIA

Santa Marina izeneko kalearen eta auzoaren nondik norakoak

'MONDRAGON SUS CALLES', Jose Letona

Santa Marina gunea Agirre izeneko lursailean dago kokatuta; Agirre berbak larrea, bazkalekua esan gura du, baita makatzen lekua ere (udareak). Hiru kalek osatzen dute gunea: Makatzenak, Hondarribiak (lehenago Extremadurak) eta Santa Marinak.

Auzoari Santa Marina de Agirre esaten zaio, gaur egun Mesedeetako ikastetxea dagoen lekuan sasoi baten Arrasateko aurreneko parrokia egon zen eta. Geroago, parrokia bota eta Santamaña izeneko baserri bat eraiki zuten. 1967an bota zuten baserri hura, eta Mesedeetako ikastetxea eraiki zuten.

Itxura denez, Gipuzkoako eliza antzinakoenetarikoa zen Santa Marinakoa. Lehen esan bezala, herriko parrokia zen, Alfontso X.a erregeak Arrasateri Fundazio Gutuna eman baino lehenagoko Arrasatekoa. Kontua da XIII. mendean gaur egungo parrokia eraiki zutenean (herriaren harresi barruan), kulture nagusia hara aldatu zela; dena dela, Santa Marinako parrokia San Juan parrokiari lotutako elizatzat hartzen

Hiru kalek osatzen dute Santa Marina: Makatzenak, Hondarribiak eta Santa Marinak

1768an, Gipuzkoako Batzar Nagusiek herrietatik kanpoko ermita guztiak ixtea agindu zuten

zuten. Hala, denbora luzean, Arrasateko parrokoek elizako dokumentuak batera sinatzen zituzten, bi parrokiak bakarra balira bezala. Eta, jakina, Santa Marina elizan ehorzketak eta bestelakoak egiten segitu zuten. Adibidez, 1575ean egunero egiten zuten meza. Dena dela, urteek aurrera egin ahala, geroago eta ekitaldi gutxiago egiten zituzten Santa Marinan.



ARRASATE PRESS

Makatzena, Hondarribia eta Santa Marina kalek osatzen dute Santa Marina auzoa.

Hala, 1768an, Gipuzkoako Batzar Nagusiek herrietatik kanpoko ermita guztiak ixtea agindu zuten. Eta urtebete geroago eliza botatzeko baime-na eskatu zuten. Hala, arrasate-

arrak udaletxeko osoko bilkuren aretoan elkartu ziren eta onartu zuten komenigarria zela herriarren kultura eta parrokia harresi barruan zegoen San Juan Bautista parrokiara

aldatzea. Gauzak horrela, 1768ko azaroaren 28an Santa Marinako eliza botatzeko baimena eman zuten, eta haren zimenduetan eraiki zuten Santamaña baserria.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko urriaren 17a / 81. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Antzerki saioa izango da Txirritola Eguna ospatzeko

UBANE MADERA

Urterokoari utsiz, Txirritola Eguna ospatuko du Txirritola Euskara Elkarteak. Aurten apurtxo bat atzeratu, eta oraingo asteburuan izango da: bihar gauean, hain zuzen ere.

Txirritola Egun berezia izango da aurtengoa. Berezia edo, behintzat, desberdina. Izan ere, aurten, ohiko bazkaria egin barik, antzerki saioa antolatu du Txirritola Euskara Elkarteak Txirritola Eguna ospatzeko. Hain justu ere, Vaiven Producciones taldearen *Lotsa-Gabe* antzezlanaren ekarriko dute Aramaiora.

Bihar antzeztuko dute lan hori, 22:00etan hasita, kultura etxean. Sarrerak bost euro balio du.



Lotsa-Gabe
Felipe Loza eta Garbi Losadarena

Bereziki 15-18 urteko nerabeei zuzendutako lana da *Lotsa-Gabe*.

GAZTEENDAKO SAIOA

Sexu heziketa du berba *Lotsa-Gabe* antzezlanak. Hain justu ere, gazteei sexologiaren inguruan egunero sortzen zaizkien zalantzak lantzen ditu, besteak beste. Hala, hiesa, anorexia, homosexualitatea, beldurrak, lotsak, eta holako gaiak aztertuko dituzte.

Jende guztiari zuzendutako lana da, baina bereziki 15 eta 18 urte arteko nerabeei; haiendako

sexu heziketaren gaineko gida izan daitekeen komedia moduan aurkez daiteke.

ANTZERKI SARIA

Horrez gainera, esan beharra dago ikuskizun ezaguna dela *Lotsa-Gabe*. Besteak beste, Donostiako 2002ko Antzerki saria jaso zuen.

Ana Pimentaren ideia originalean oinarritutako lana da. Tes-

tuak Felipe Lozak eta Garbi Losadak idatzi dituzte eta Nagore Aranburuk egin du itzulpena. Bestalde, Jon Calvo, Getari Etxegarai, Miren Iburguren, Gorka Otxoa, Maider Yabar eta Dorleta Urretabizkaia gazteek osatzen dute aktore taldea.

Oro har, hausnarketarako eta dibertitzeko aukera paregabea dago bihar, batez ere gazteendako.



Jende gutxi baina giro polita

Xabier Alustiza gailendu zen *rallysprint*-eko proban. 18 minutu eta 7 segundoan bukatu zuen ibilbidea; bigarrenari, Txema Uzkuduni, 21 segundo atera zizkion eta hirugarrenari, Luis Mari Azkunerri, 24 segundo. Irabazleak 400 euroko saria eraman du. Antolatzaileek kontatu digutenez, uste zuten baino jende gutxiagok hartu zuen parte, egun berean Urbasako proba egin zuten-eta. Dena dela, 1.000 lagun inguru erakarri zituzten Aramaiora.

HERRITARRENHITZA / Yago Goronaeta • Langilea

Boloak eta pilotalekuak (Bowling for colombine)

eta bueno, oraingo honetan Oscarra irabazi duen ● ● ● azkeneko dokumentalaren gainean berba egin behar dizuet. Gogoratzen duzue haren errealizadorea estatuatxoa hartzen eta Bushen eta haren politikari militarren gainean luze eta zabal berba egiten ikusleen txistualdiaren erdian? Haren izena Michael Moore da eta pare bat orduan jarlekuan itsatsita eduki ninduen dokumentalaren errealizadorea da; Coloradoko Littlel-tongo Columbine High Schoolen gertatutako sarraskia dramatikoaren gainekoa da. Armatuta sartu ziren bi ikaslek andereño bat eta hamaika ikasle erail zituzten.

Balak erraz asko lortu zituzten, merkataritzagune batean.

Moorek galdera batzuk egin zituen:

Zergatik Ameriketako Estatu Batuetan urtero 11.000 lagun hiltzen dira su-armek eraginda? Horren desberdinak dira AEBak eta gainerako herrialdeak? Zertan desberdintzen da?

Zergatik AEBak dira horrenbeste indarkeriaren eragile eta biktima? Dokumentalean zenbait argudio ageri dira;



“Zer egin diezagukete beldurraren erruz?”

autoreak oso tinkoak ez diren argumentu ingeniosoenkin baztertzen ditu. Poliki-poliki diskurtsoaren emaitza aurkezten du.

AEBetan hurkoaren mesfidantza handia dago (are handiagoa azal zuriduna ez bada); mesfidantza hori beldur bihurtzen da; eta beldur horrek su-

arma gehien dituen herrialdeko biztanleak nork bere defentsarako edozein instrumenturen jabe gitegera behartzen ditu. Beldurra

eragiten digun hura hil egin ohi dugu-eta gizakiok.

Bidean gurutzatzen den sugogorria ikusiz gero, hiltzeko gogoia sentitzen dugu, sorrarazten digun beldurrak eta nazkak eraginda. Beldur hori gure baitan dago, baina ez digu balio gizartean bizitzeko. Izugarriena da beldur horiek gizartearen zati direnean. Gizarte alemana juduen beldur zen eta ez zen haiekin fidatzen; hala, ia-ia desagertu egin ziren juduak.

Horrelakoak pentsatzen, honakoak bururatzen zaizkit: zer egin genezake beldurraren erruz? Zer egin diezagukete beldurraren erruz?

LABUR

Erretiratuen Egunerako txartelak salgai

Datorren zapatuan, hilak 25, ospatuko dute aurtengo Erretiratuen Eguna. Besteak beste, bazkaria antolatu dute herriko erretiratuendako. Eta bazkarira joateko, txartelak erosi behar dira alde aurretik. Hala, Aramaioko Udalak jakinarazi digunez, auzoetan auzo alkateek dituzte txartelak eta Ibarra udaletxean, Vital Kutxan edo Euskadiko Kutxan erosi daitezke. 6 euro balio du. Bazkaria pilotalekuan izango da, eta ostean musika saioa egongo da.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (bandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletekoa	945 44 50 16
Ertzaizta (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:10	20:25

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

DANTZA TALDEAREN OHARRA

Lagun artean dantza taldeak jakinarazi digunez, 12 urtetik gorako dantzariak behar dituzte taldean, nagusien dantza-taldea osatzeko. Ainara Inuntziaga arduradunak esandakoaren arabera, neskak eta mutilak, biak hala biak behar dituzte. Hala, interesa duenak Sastiñara joan beharko du bihar, zapatua, 16:30ean. Jendea animatzeko, Ainara Inuntziagak dio dantza taldeak aukera handiak ematen dituela kanpora ateratzeko, herriz herri ibiltzeko; eta oso ondo ibiltzen direla. Badira hiru urte nagusien dantza talderik ez dagoela.

MARGO LEHIAKETA

Domekan egin zuen Itur Zuri elkarteak urteroko Margo Lehiaketa. Eta esan beharra dago irabazleen artean aramaior bat dagoela. Hain zuzen ere, Izar Elortzak aurreneko saria eskuratu zuen 16 urtetik beherakoan artean. Bigarren Lide Mar Barrutia izan zen. Nagusien artean, berriz, Juan Jose Altunak irabazi zuen eta Aitor Lajarin izan zen bigarren.

Mozio bat eta larregizko ur-kontsumoa berbagai

UBANE MADERA

Datorren eguaztenean, 18:00etan, osoko bilkura egingo dute. Landuko dituzten gaien artean, homosexualen gaineko mozio bat izango da; baita ere gehiegizko ur-kontsumoaren gaineko ordenantzen aldaketa. Azkenaldian izan diren kontsumo handiegia ekititeko egingo dute.

Udaleko teknikariek emandako informazioaren arabera, azkenaldian ezohiko ur-kontsumoa sumatu dute uren sarean. Bi hilean 300 m³ kontsumitu ei du erabiltzailearen batek; litrotan 300.000 litro ur da kopuru hori. Besteren batek 100 m³ kontsumitu ei ditu. Eta kontsumo horiek arrazoitu barikoak izan dira; hau da, ur hori ez dute erabili ganadutarako edo antzerako beharretarako, baizik eta erabilera pribatua egin dute (igerilekua betetzeko...).

Hori ikusita, osoko bilkurari proposatuko diote larregiko kontsumo horiek zigortu egin behar dituztela. Hala, 100 m³-tik gora egiten den ur-kontsumoarengatik, betiere arrazoitu barikoa bada,

ohiko prezioa baino dezente garestiago ordaindu beharko dute erabiltzaileak.

HOMOSEXUALEN GAINEKO MOZIOA

Bestalde, pertsona homosexualen adopzio eskubideen gaineko mozioa ere aztertu beharko du udalbatzarrak datorren eguazteneko bileran. Mozio horrek gay eta lesbianen duintasun eta berdintasun eskubideak berresten ditu, eta haiekiko bereizketa bortitza gorde gura duten zenbait indar integristaren erreakzio homofoboa salatzen du (George W. Bush, Joseph Ratzinger kardinala...). Bereziki, Partidu Popularrak homosexualen oinarritzko eskubideak galarazteko duen gogo nabarmen du mozioak. Hala, eskatzen du Partidu Popularrak ken dezala Izatezko Bikoteen Legearen aurka jarrita dituen helegiteak; aitor dezala bikote homosexualak adopziozko duten eskubidea eta errespetu daitezela joera homosexualak duten pertsonen giza-eskubideak.

Kontuak kontu, batzarra datorren eguaztenean denez, ez dugu jakiterik zein erabaki hartu duen udalbatzarrak.



Etxean erabilitako olioak batzen hasiko dira laster

UBANE MADERA

Etxean erabilitako olioak batzen hasiko dira laster. Gero olio hori birziklatzera eramango dute. Ibarrean, bestelako herri guztietan batzen dute olioak, Mankomunitatearen eskutik. Aramaion, olioak batzen hasi aurretik, olio-bidoiak gordetzeko txabola konpondu egin behar dute.

Orain arte, etxean erabilitako olioak arraskatik behera bota izan dugu gehienok. Baina, itxura denez, hori egitea uste baino arriskutsuagoa da. Izan ere, arraskatik ibaira doa olio hori, eta ibai-landaretzari eta izakiei oxigenoa kentzen die. Horrez gainera, arazo praktikoak ere

ematen ditu, hodiak buxatzen ditu-eta olioak.

Gauzak horrela eta jakinda olioak berriro erabili daitezkeela, arraskatik botatzea baino hobe da birziklatzea. Eta Aramaion laster hasiko dira hori egiten.

TXABOLA KONPONDU BEHAR

Baina olioak batzen hasi aurretik, batutako olio-bidoiak gordetzeko lekua txukundu behar dute. Izan ere, Udalak erabaki du kiroldegira bidean dagoen txabolatxo erabiltzea horretarako. Hala, lanok egiteko lehiaketa egin dute, eta jasotako proposamenen artean, Elusu enpresak egindakoa aukeratu du Udalak. Horren arabera, 1.700 euro inguru inbertituko dute lanok egiteko. Hortaz, dagoeneko esleitu dute proiektua.



Untzillan eta Barajuenean lan handiak egin behar izan dituzte instalazio elektrikoetan.

Auzoetan egiten dituzten etxeekin lotutako lanak

UBANE MADERA

Auzoetan etxe bat eraikitzen dutenean sortzen den argindar gastua horren handia ez izateko bide berriak aztertzen dabil Udala. Hain justu ere, oraingoz, orain arte moduan segituko dute, baina aztertuko dute ea udal ordenantzek tasa berriren bat zehazteko aukera ematen duten.

Orain arte, baserri-auzoetan etxe bat egin ez gero, etxe berriak argindarra izan dezan lan handiak egin behar izan dituzte baten baino gehiagotan (Untzillan, Altzagan eta Barajuenean). Izan ere, auzoetako instalazio elektrikoak zaharkituta daude, eta zabaltze-lanak egin behar izaten dituzte. Baina horrek kostu handia izan ohi du.

Orain arte, kostu hori etxea eraiki duenak ordaindu izan du. Udalak badu hitzarmen bat egiteko aukera. Haren arabera, etxea eraiki den auzoko instalazio elektrikoan egindako lanak bost urte baino lehen beste norbaitek apro-

betxatuz gero, pertsona horrek gastatutako diruaren zati bat itzuli egiten dio etxe-erakitzailari.

Kontuak kontu, Udalak uste du etxe-erakitzzaileak ordaindu beharrekoa larregikoa dela. Hori dela eta, Udaleko ordezkariak Jaurilaritzan egon berri dira, Industria eta Energia Saileko Angel Cachorro teknikariarekin. Eta proposatu diote gaur egun dagoen legea ez erabiltzea. Baina Aramaioko Udaleko teknikariek kontatu digutenez, ezezko erantzuna jaso dute Jaurilaritzatik. Hortaz, lehengo moduan segituko dute oraingoz.

TASA ALDATZEKO AUKERA

Hori ikusita, orain, Udaleko teknikariak beste aukera bat aztertzen dabilta: egin gura dutena da argindarra erabiltzearen kobratzen den zerga hori garestitzea (alta), eta hortik eskuratzeko diruarekin instalazio elektrikoak zabaltzeko lanak ordaintzea. Udal ordenantzek hori egiten uzten duten aztertuko dute orain, eta gero, osoko bilkurari proposatuko diote.

LABUR

Camerata Gasteiz taldeak kontzertua emango du datorren barikuan, hilak 24

Erretiratuen Egurenaren bezperan, Sabin Salaberrik zuzendutako Camerata Gasteiz taldeak kontzertua emango du. Kultura etxean izango da, 21:00etan. Corelliren, Vivaldiren, Purcellen, Häendelen eta Bachen musika interpretatuko dute. Hala, Vivaldiren kantuan, François Moncierok biolontxeloa joko du; Häendelen kontzertuan, Pablo Martinez Espartzak tronpeta joko du; eta Bachen kontzertuan, Agusti Coma eta Victor Parra bakarlariek ekitaldia egingo dute.

Hari-tresnekin osatutako taldea da Camerata Gasteiz. Hain justu ere, hamalau hari-tresna ditu oinarri. Taldearen zuzendari Sabin Salaberrik esandakoaren arabera, orain dela gutxi sortu zuten, 2003ko urtarrilean, hain zuzen ere, baina hala eta guztiz ere, dagoeneko kontzertu ugari eskaini ditu Arabako bazterretan. Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioko zenbait irakaslek, ikaslek eta ikasle ohik osatzen dute taldea eta ganbera-orkestra antza du.

ERRETRATUZHARRA

Herrikideak antzerkian
ibiltzen zirenekoa

Arrasateko historian atzera egiten badugu eta joan den mendearen erdialde ingurura-edo joan, besteak beste antzerki-saioen berri jasoko dugu. Izan ere, antzina-ko denbora-pasen eta jokoan artean, antzerkiak edo teatroak arrakasta dezentea izaten zuen. Bitxikeria moduan esan beharra dago antzezpentako asko nor bere etxeetako atarteetan eratzen hasi zirela. Horrelakoetan, atariko atea itxi egiten zuten barrutik eta etxeko auzokideei bakarrik zabaltzen zieten. *Antzeztokia*-ren kokapena aldatu egiten zuten antzezlarien adinaren arabera: gaztetxoan ataritik neska eta mutil koxkorragoen ganbararaino igotzen zen. Atarian, gehienez, neskei gona jasotze-

raino ailega ei zitekeen, eta autozentsurak agintzen zuen, saioan zehar edozein pertsona nagusi igaro zitekeen-eta antzezlarien artetik; eta, badaezpada ere, arriskuak saihestu egin behar izaten zituzten.

Kanpotik behin baino gehiagotan etortzen ziren Arrasatera titiriteroak eta antzerakoak; baina, jakina, saioetako protagonista nagusiak arrasatearrak izaten ziren. Gure argazkiak, esate baterako, horrelako antzezlari baten irudia erakusten du. Besteak beste, Ignacio Bedia *General Tablas* eta haren alaba Miren agertzen dira.

Argazkia eta informazioa: Nire haurtzaroko Arrasate, Josemari Velez de Mendizabal
Urtea: 50eko hamarkada



NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Santa Barbara
parkea berritu
zutenekoa

Arrasate handitzen joan den neurrian, herriko berdeguneek berebiziko garrantzia hartu dute. Zementuz eta altzairuz egindako herriek beharrezkoa dute kolore berdea; eta, hain zuzen ere, Santa Barbara parkea da Arrasateri oxigenoa ematen dion gune horietako bat. Ez dago mondragoetarrik Santa Barbaran jolasean ibili ez denik; seguru, gainera.



≈ 1991 Santa Barbara parkeko lanak amaitu eta gero, inaugurazio ekitaldia 1992ko abenduaren 4an egin zuten.



2003 Gaztetxoendako Santa Barbara da jolasgune gustukoenetako bat. Parkea itxuraldatu egin dute, baina ohiturek berdin segitzen dute.

arbolapeta

arrasate

beinke

"PAL"

Burdindegia
Brikolajea
Tresneria

Uribarri etorbidea 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

Garagardo ona, giro hobea


TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE



Amagara

Apunta zaituz Adinari Aurre Egiteko Planean

Urriaren 17tik abenduaren 5era

Deitu eta konpromiso barik informatuko zaitugu

Erdiko kalea 54. Tel.: 943 79 09 09

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behe. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A 943 77 05 57

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEIA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma. 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37. 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiomasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behe eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22